


Zumaiako herri aldizkaria

2000ko urria

# BALEIKE

200 pzta.

72. zenb.



● 2020,  
etorkizuneko  
Zumaia

● Baleike 15,  
proiektu  
berria

● Josu Arana  
eta Telmo  
del Pilar-ekin  
solasean

● Bigarren eraso  
Korta familiari

# ERROTA



# OPIL OKINDEGIA

*era fuztietako tarta  
eta pastelak*

LABEA:

Santixo auzoa TEL: 943 86 00 00

Erribera, 2 TEL: 943 14 30 01

Juan Belmonte, 5 TEL: 943 86 03 00

Basadi, 4 TEL: 943 14 32 21

P. Etxezarreta, 42 TEL: 943 86 25 28

Alai, 8 TEL: 943 86 25 60


# Urolthermik

## Arotzia Metalikoa



**Urolthermik**  
Carpinteria metalica

### POLIURETANOZKO LEIHOAK PERFILTHERMIK SISTEMA



- Aluminiozko leihoak (zubi termikoa etenda)
- Aluminiozko barandak
- Pertsiana mallorcarrak
- Garajetako metalezko ateak eta subesiak

Santixo auzoa, 20. pabilioia  
Tel./Faxa: 943 - 86 03 20 ZUMAIA

Juan Belmonte, 29 behea  
tel.: 943 86 15 45  
faksa: 943 86 17 42  
e-mail: baleike@topagunea.com

#### Argitaratzailea

ZUMAIAKO GAZTE BATZORDEA

#### Administrazio batzordea

Xabier Azkue  
Esther Etxeberria  
Aintzane del Pilar

#### Erredakzio batzordea

Antxoka Agirre  
J.L. Romatet  
Josu Waliño  
Gorka Zabaleta

#### Kazetariak

Antxoka Agirre  
Gorka Zabaleta  
J.L. Romatet

#### Kolaboratzaileak

Ostarrena Zine Klub  
taldea, Miriam Romatet,  
Jon Manzisidor,  
Fototeka,  
Andoni Ormazuri, etab.

#### Komikia

Iban Barrenetxea

#### Argazkiak

Baleike

#### Diseinua

Juan Luis Blanco

#### Maketazioa

Juan Luis Blanco

#### Hizkuntz zuzenketa

Xabier Azkue  
Imanol Azkue

#### Banaketa

Andoni Ormazuri,  
J.J. Aizpurua

#### Publizitatea

Esther Etxeberria  
(943 861545)

#### Inprimategia

Gertu Inprimategia  
(Zubillaga - Oñati)

#### Tirada

1.000 ale

#### Lege gordailua

SS-405/94

#### ISSN

1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

## Belaunaldi galdua

Udararen amaierak bere puntu onak eta txarrak ditu. Txarren artean, zuhaitzak izango bagina bezala, historik gabe geratzen garela. Eskua burutik pasatzen dugun bakoitzean, behatzen artean ileak barra-barra agertzen zaizkigu, lepo gainean dugun bultoa txupatxus baten antzera geratzen den bitartean. Alde onetako bat, aldiz, adoleszenteak eskolara bueltatzen direla da. Ze benetan gauza jasanezina bihurtu da udarako hilabeteetan kalera ateratzea. Dena adoleszentez josita dago. Zein baino zein tuntunago eta lerdoagoak. Hor dabilta aitaxok edo amatxok erositako telefono mugikorrek deiak egin eta deiak egin, nahiz eta deia egiten duena eta jasotzen duena bata bestearengandik 10 metrora egon. Eta esango didazue zertarako behar dituzten telefono mugikorrek tuntun koadrila horrek. Goizaldera arte egoten dira edozein parke edo kaletan beren gauzak esaten. Marruka, oihuka jendea bakean utzi gabe. Modako telesailetan agertzen diren arropak eta orrazkerak daramazkite. Ez dute jakingo Humphrey Bogart, Fidel Castro edo Lou Reed zein diren, baina bai "Compañeros"-eko aktoreen izenak. Eta horrela infinitura arte.

Irakasle bati entzun nion behin oraingo gazteekin lan egitea alferrik dela, ez dagoela zereginik. Ez dute ideologiarik, ez daukate pentsatzeko gogorik, denbora ahalik eta hobekien pasatzean besterik ez dute pentsatzen. Galdutako belaunaldizat jotzen zuen irakasle honek. Eta hala izango da. Penagarria benetan.



Juan Luis Romatet

## Premiazko telefonoak

Kultur Etxea	943 86 10 56	Ludoteka	943 14 32 64
Polikiroldegia	943 86 20 21	Tren geltokia	943 86 11 27
Gurutze gorria	943 86 10 93	Taxi geltokia	943 86 13 60
Udaletxea	943 86 50 25	Bake epaitegia	943 86 00 67
Gizarte Zerbitzuak	943 86 22 00	Posta	943 86 15 00
Osasun zentrua	943 86 08 62	Udaltzaingoa	943 86 18 70
San Juan Egoitza	943 86 12 73	Pilotalekua	943 86 21 72
Pentsiodunen Egoitza	943 86 17 00	Larrialdi zerbitzua	943 46 11 11
Musika eskola	943 86 11 83	Txomin Agirre euskaltegia	943 86 02 48


Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaia Udalak



CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA



gizarte-ekintza  
obra social



Azken Baleikea arreta handiz irakurri ondoren, eta gure inguru hurbilean gertatutako atentatuek eragin didaten zirrara eta nahastea gaintitu nahirik, gaur egun bizi ditugun une latzei buruzko neure gogoeta zintzoa egin nahiko nuke gutun honen bidez.

Aipatutako ekintzak izugarritzko kolpeak izan dira niretzat eta, egia esan, ez da erraza zartada horien eragina gaintitzea. Badakit ekintza horiek estrategia baten barruan daudela kokatuta, baina ni ezin naiz bat etorri estrategia horrekin. Lehenengo, gizaki baten heriotza eragin zuen; bigarrenik, beste ekintza batek familia berbera astindu zuen eta oinazea oinazearen gainean ekarri du.

Horregatik, ondo ulertzen dut azken asteotan Zumaian izan ditugun erreakzioak eta gizartean zabaldu den eztabaida sumindua. Uste dut, gainera, norberak eskubide osoa duela bere iritzia nahi duen lekuan adierazteko, beti ere zentzuz azaltzekotan. Gauzak nola joan diren ikusirik, ordea, gizarte hausturarako arriskua oso gertu sumatu ondoren, argi eta garbi adierazi beharra daukat ez daukadala inongo erantzukizunik aipatutako ekintzetan. Ekintza horien erantzukizuna egin dituenarenak dira, eta, beraz, egin dituenak bakarrik har ditzake bere gain, eta baita zergatiak eman ere, ematekotan.

Duela bi urte su etena iragarri zenean, guztiongan itxaropena piztu zen. Itxaropenarekin batera, gainera, beste sentimendu bat ere sortu zitzaigun: konfiantza. Izan ere, konfiantza geneukan urratzen ari ginen bide erabat berrian, ezezagunean eta irekian, eta gutariko asko eguneroko lanean hasi ginen, arazoei behingoz heldu eta konpontzen saiatzeko, hain giro politiko nahasia behingoz argitzeko, elkarbizitza baketsua oztopatzen duten zailtasunak ezabatzeko.

Baina su etena bertan behera geratu zenean, ezintasuna eta etsipena gailendu zitzaizkidan. Estatu espainiarraren aldekoek gogor presionatu zuten hasitako bidea ixteko; Lizarra-Garaziko agenteek, berriz, ez zuten behar adinako konpromisorik erakusten aurrera egiteko; azkenean, Lizarra-Garaziko akordioak ere indarra galdu eta piztutako itxaropenak zapuztu egin ziren, itzaldu. Nolako ondorioak izan ditugun ikusita, uste dut bere garaian arduragabekeria izan zela nagusi; hau da, sinatzaileek ez zutela neurtu behar bezala akordioak zenbaterainokoak ziren.

Azkenik, indarkeriaren gaiari dagokionez, esan dezadan ezker abertzaleko kideon artean (neu ere barne naizela), iritzi desberdinak daudela gaur egun borroka armatuaren eginkizuna aintzat hartzerakoan. Ezker abertzalearen barruan eztabaida hori inoiz ez dugu baztertu edo isildu, are gutxiago udako azken atentatuen ondoren. Neure aldetik, uste dut bakea lortzeko bide bakarria dagoela: guztion konpromiso maila areagotzea eta gatazkan murgilduta dauden agente politiko guztien arteko negoziazioa, ETA ere barne dela. Gaur egungo egoeraren aurrean, ordea, uste dut ezinbestekoa dela beste su eten bat, berriz ere duela bi urte ibilitako bide berari ekiteko eta orduan eman ziren aurrerapausoak behingoz emateko.

Nire iritzia argi azalduz, iruditzen zait nirea bezalako pentsaera edo sentsibilitateek ere badaukatela lekua EH barruan eta, horregatik, orain arte bezala lanean jarraituko dut nire ideiak defendatzeko. Erantzukizun hori bai hartuko dudala neure gain. Agian norbaiti ez zaio nahikoa irudituko, baina prest nago nire ahalegin guztia horretan emateko, azken hilabeteotako gertaerak bezalakoak, ahal bada, behintzat, etorkizunean gerta ez daitezen.

**Gontxalo Torre. Zumaia EHko zinegotzia.**  
Zumaia, 2000ko irailaren 25ean

### Horrela ez

Lehenengo hilean, Zumaian, Josemari Korta akatu zuten askatasunaren izenean.

Abertzalea, euskaldun peto petoa eta herrian sortu izan diren zenbait proiektu eta lanetan beti laguntzeko prest azaldu izan zen gizona.

Ez nuen asko ezagutu, eta zoritxarrez ez dut hobeto ezagutzeko aukerarik izango, baina horrelako pertsona bat erahiltzea Euskal Herriaren askatasuna lortzeko bidea baldin bada, bide okerra iruditzen zait eta Euskal Herria etsaien esku uzteko bide egokiena.

Lerro hauetan nere pena azaldu nahi dut askatasunaren borrokan ekintza honek suposatzen duen atzerapauso ikaragarriatik eta Josemari betirako galtzeagatik.

**inaxio manterola**

**7**  
MARES  
7 MARES  
Arrain eta mariskoak  
Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak  
Zuloaga plaza, 1  
Tel. 862309

**BASADI**  
ALBAITARITZA  
KLINIKA  
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN  
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL  
-ALBAITARIAK-  
Basadi, 7 behea  
Tel. 143310  
Tel. mugikorra: 908- 775508  
Larrialdiak  
- 24 ordu  
- zeure etxean

dekorazioa  
**ALBERDI**  
• Eskaiola  
• Pladur-a  
936 726188  
943 143261

# Bigarren atentatua Korta familiari

## Lehergailua jarri zuen ETAk Txixarron

Joxe Mari Kortaren hilketatik hilabete eskasera izan zen bere anaia Narziso Kortaren Txixarro dantzalekuaren kontrako atentatua.

Goizeko 10 eta erdiak aldean enkaptatu txatu talde bat sartu zen Txixarron. Bost ordu ziren dantzalekuak atek itxi zituenetik eta garbiketa eta mantenuaz arduratzen ziren senar-emazte batzuk ziren barruan aurkitzen ziren bakarrak.

Hamaikak baino minutu batzuk lehenago Gipuzkoako Gurutze Gorriak deia jaso zuen ETaren izenean Txixarron lehergailua jarri zutela eta bertan zeuden bi langileak Itziartik Endoiara doan errepidearen ondoko zuhaitzi batetan lotuta utzi zituztela abisatuz. Senar-emazteak ehiztari batek aurkitu zituen leherketa gertatu aurretik.

Eztanda inguru guztian entzun zen. Ez zuen zauriturik eragin baina kalte materialak oso handiak izan ziren. Teilatu guztia behera erori eta eraikinaren ezkerreko hegala erabat txikituta gelditu zen. 25 kilo zituen lehergailuak.

Berehala inguratu ziren anbulantziak, Ertzaintza eta kazetariak. Narziso Korta eta Oier semea ere bai, eta politikari batzuk, tartean Roman Sudupe Gipuzkoako Diputatu Nagusia eta Jose Maria Ruiz de Urtxegi Adegiko Idazkaria.



Teknikoek eginiko analisisien arabera, eraikinaren oinarriko egiturak oso kaltetuta gelditu dira eta dantzalekuak behera bota beharko dute seguruenik.

### Langileen erreakzioa

Scanner dantzalekuak eta jatetxe bat ere eraikinean kokatzen ziren. Guztira hirurogeita hamabost langile zituen Txixarrok.

Beraiek izan ziren, hain zuzen, atentatuaren aurkako adierazpen bat kaleratzen lehenengoak.

Atentatuaren biharamun arratsaldean dantzalekuaren aurrean kontzentrazio

bat egin zuten 'Lana kendu diguzue. Zergaitik' zioen pankartarekin. "horretatik inork ez du etekinik ateratzen eta asko gara kaltetutakoak, tartean langileak" irakurri zuen euren ordezkariak. Garbitzaileek jasandako angustia eta sufrimendua ere salatu zuten, eta familiarekin bat egin zuten.

Langileek deituriko bigarren kontzentrazio bat ere egin zen iluntzean, Deban.

**Alberdi**  
Gizonezkoen moda



Erribera kalea, 6  
Tel. 861155



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 861156

**Antonio Etxabe**

Gizonezkoen  
erropak



Zumbillo, 4 Tel. 861407

# Pare bat kontzentrazio eta manifestazio herriko bat

Txitxarro dantzalekuaren aurkako atentatua izan zen egun berean egin zen lehen kontzentrazioa Erribera kaleko magnolioaren aurrean. Ehunka pertsona hurreratu ziren bertara, nahiz eta kontzentrazio hau aurrez iragarrita egon ez. Jendearen artean zeuden, besteak beste, Roman Sudupe Gipuzkoako Diputatu Nagusira eta Jose Maria Ruiz de Urchegui, Adegui buruetako bat. Isileko 15 minutuko kontzentrazioa burutu aurretik, Korta anai-arrebetatik gazteenak komunikatu bat irakurri zuen. Bertan esaten zenez, ETak oraindik ere ez omen zituen Korta familiak egindago galderei erantzunik eman, galdera hauek ez baitzuten erantzunik. Bestetik, Txitxaroren aurkako atentatua familia isilarazteko saiakera bat izan omen zen, familia beldurtzeko era bat. Aipatu zenez, alferrikakoa omen da, familia ez baita isilduko. Bilkura isiltasunean egin ondoren jendea sakabanatu egin zen.

Irailaren 11n egin zen bigarren kontzentrazioa, ohi den bezala magnolioaren aurrean. Bigarren kontzentrazio hau Udalaren eskutik etorri zen eta zumaia ugarik hartu zuten parte bertan. Magnolioaren azpian jarri ziren Udaleko ordezkariak "Bakea behar dugu" jartzen zuten pankarta baten atzean. Beraien aurrean Korta familiako partaide batzuk eta herri-tarrak zeuden. Aurreko eguneko bilkuran gertatu zen bezala, erakunde-etako goi kargu batzuk ere bazeuden



bertan, hala nola, Josu Jon Imaz, Roman Sudupe, Iñaki Alkiza eta Ruiz Urchegui, besteak beste. Ordu laurdenean isilik egon ondoren, Ricardo Peña alkateak Udaleko EAJ, EA eta PSEko bozeramaileek idatzitako adierazpena irakurri zuen. Bertan, atentatu gaitzetsi ondoren, atentatu hau eraiketa bat inolaz ere onartzen ez duen familia oso baten aurka egindako mendeku ekintza bezala jo zuen. Korta familiari bere elkartasuna berretsi ondoren, ETari elkar ulertzea ahalbidetuko duen su-etena aldarrikatzea eskatu zion eta PPri dagozkion gobernu ardurak bete ditzala eta gatazkari behin betiko irtenbidea bilatzeko elkarriketa prozesu bat has dezala eskatu zioten alderdi sinatzaileek.

Atentatua izan eta hurrengo asteburuan, Joxe Mari Kortaren hilketari salatzeko manifestazio batek zeharkatu zituen herriko kaleak.

Ekitaldi honetarako deia Zumaiaiko Txirindulari Elkarteak egin zuen, eta ondoren herriko elkarte gastronomiko eta kirol elkarte guztiak batu ziren. Jende piloak hurbildu zen manifestazio honetara. Halako kasuetan gertatu ohi den bezala, magnolio aurretik irten zuten manifestazioak, honen buru talde sinatzaileetako ordezkariak zeudela. Eskuetan zeramaten pankartan "Joxe Mari falta zaigu. Zergatik?" leloa agertzen zen. Herriko auzo eta kaleak zeharkatu ondoren, manifestazioa Beheko Plazan amaitu zen. Bertan, antolatzaileek sinatutako komunikatu bat irakurri zen. Hilketari hau gaitzetsi eta familiari beren doluminak adierazi ondoren, Joxe Mari Kortari Zumaia eta Euskal Herriarekin konprometitutako pertsona bat zela aipatu zuten, bai bere eguneroko bizitzan, bai bere uste etiko eta abertzaleetan. Txalo zaparrada baten bitartez eman zioten amaiera ekitaldi honi.

**ARGIA**  
ARROPADENDA

Itzurun, 1      Tel. 143224

**Arkupe**  
Okindegia  
eta gosariak

Kale nagusia, 2      Tel. 861521

**ad**      **AUTOS ZUMAIA**

Urola plaza 3-5  
Tel: 943 86 14 85

# Udaleko Osoko Bilkurak

## Korta sendiaren aldeko mozio bat onartu du

Zumaiako Udaleko Osoko Bilkurak, EAJ, EA eta PSE-ren aldeko botoekin eta EH-ko zinegotzien abstentzioarekin Korta familiaren aldeko mozioa onartu zuen pasa den irailaren 28an. Korta familiak jasan dituen bi erasoen ondoren egiten den lehen ohiko Bilkura honetan aurkeztu zuten Zumaiako EA-k eta EAJ-k mozio bateratu hori.

eserlekuen aurrean. Irudiarekin batera, EH-ko zinegotzi bakoitzaren izena eta "Zergatik?" galdera agertzen zen.

Bilkuran jorratuko zen gaia zein zen jakinda, jende ugari hurbildu zen Bilkurara. Jendeak aretoko eserleku guztiak bete zituen, eta askok zutik iraun zuten mozioa eztabaidatu zen denboran. EA-ko Arantxa Gajatek

ETA-ri beste su eten bat eta PP-ri elkarrizketak has ditzan eskatzen dio.

### Istiluak

Zinegotzien artean bozketak egin aurretik, Ricardo Peña alkatea EH-ko ordezkari zuzendu zitzaizen galdera batzuk eginez. EH-koek galderei ez zietela erantzungo eta komunikatu bat irakurri zuen. Bertan Korta familiari beren samina azaldu zien. Hala ere argi utzi nahi izan zuten ez zirela kondena edo ez-kondena jokoan sartuko eta alderdi abertzaleen arteko elkarlana eskatu zuen gatazka hau gainditzeko.

Komunikatu horren irakurketak giroa berotu zuen. Alde batetik, alkatea ETA-ri bota zizkion kulpak abertzaleen lorpen denak pikutara bidaltzeagatik. Bestetik Korta familiako kide batzuk, Narziso eta Oier buru zirela, EH-ko zinegotziei aurpegiratu zieten komunikatu baten atzean ezkutatu izana eta elkarrizketari muzin egina. Horien ondoren, familiarterko lagun gehiagok hartu zuen parte, eta denak ere EH-ko zinegotziei zuzentzen zitzaizkien. Bilkura amaitzera zihoala, Narzisos, nahiz eta beste bonba bat jarri, bera ez dutela isilduko aldarrikatu zuen.

Bozketa egin aurretik, eta PSE-ko zinegotziek eskatuta, mozioan aldaketa bat egin zuten: ETA-ri beste su eten bat eskatu beharrean, bere desagerpena eskatzen zioten. Mozioa EAJ, EA eta PSE-ren aldeko botoekin onartu zen.



Osoko Bilkura hasi baino hamar minutu lehenago ere tentsio nabarmena sumatzen zen gelan. Aretorearen alde batean, EA eta PSE-ko zinegotzien eserlekuen atzean, Korta familiako kide batzuk eseri ziren, Txitxarro dantzaleku erasotuarren jabe den Narziso buru zutela. Aretorearen beste aldean, EH-ko zinegotziak esertzen diren aulkien atzean, alderdikide batzuk eseri ziren. Korta familiak, erailldako Joxe Mari Kortaren irudi bat jarri zuen EH-ko zinegotzien

irakurri zuen mozioa. Azken hilabeteotan Zumaian bizi izan dugun egoera jaso ondoren, mozioa osatzen duten lau puntuak irakurri zituen. Puntu horietan Joxe Mari Korta eta Txitxarro dantzalekuaren aurkako atentatuak gaitzetsi eta arbuatzen ziren, eta baita ETA-k bere azken komunikatuan azken eraso hau justifikatzeko emandako arrazoiak ere. Korta sendiarekiko elkartasuna berrestez gain, iritzi guztiak onargarritzat jotzen ditu mozioak. Azkenik,



**AUTO-ESKOLA**



- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua

- Praktika eta azterketak Azpeitian

- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

**ZUMAI A**

Basadi, 12 behea Tel. 861018



**Azkue Autoak**

Estazioko kalea, 19

Tel. 861433  
Faxa: 861067

## Itsas garraioaren balantze baikorra

Pasa den uztailaren lehen egunean "Nuestra Señora del Carmen" ontzia Urolaren bokalea zeharkatzen hasi zenetik, egunero ikusi dugu txalupa ibaian gora, ibaian behera. Batzuetan hutsik, beste batzuetan jendez leporaino, goizetik gauera arte ibili da ontzia herriko hiru puntu elkar lotzen, herriko kaia, Santixoko hondartza eta kirol portua. Jarduera honetaz gain, gauez egindako ibilaldi batzuk ere antolatu zituen zerbitzu hau aurrera eramateaz arduratzen den Kai Argi enpresak. Denboraldia amaitu dela eta, lehen urte honen balantzea egiteko aukera izan dute Usurbilen kokatuta dagoen enpresako kideek.

Horien esanetan balantze baikorra egin behar da, bai itsas linea erregularrena aldetik, eta baita asteburuetan burutu diren ibilaldiena ere. Linea erregularrak uztailaren 1ean hasi eta irailaren 17an amaitu zuen jarduna. Orotara ia 11.000 pertsona pasa ditu ontziak batetik bestera. Arduradunen esanetan, kopuru polita da, kontuan hartzen bada, nahiko uda kaskarra egin duela eguraldi aldetik. Jendea herriko leku batetik bestera eramateaz gain, enpresako jabe batek aipatu digunez, bat baino gehiago izan da ontzira igo eta buelta bat ematera



irten dena, hogeit hamar minutu horietan ibaian gora eta behera ibiliz. Ontzian ibili direnak gustura agertu omen dira Kai Argikoen esanetan, bai zerbitzu aldetik, eta baita ontziak eskaintzen duen erosotasun aldetik.


Linea erregularrekin batera, Kai Argikoen uztailaren amaiera aldera beste zerbitzu bat jarri zuten martxan, Urola ibaian egingo ziren ibilaldiena. Gauez egingo ziren ibilaldi horietan, ontziak ibaiaren bokaletik Beduaraino doan bidea betetzen zuen. Irteera horiekin esperientzia berri bat jorratu nahi zuten: ibaitik egunaren amaiera eta ilargiaren irteera ikustea, ibai eta itsasoaren arteko diferentzia sumatzea, etab. 250 lagun inguruk hartu du parte asteburuetan izan diren irteera horietan. Batzuek, gainera, errepikatu egin dute.

Datorren urterako oinarri bat badutela uste dute Kai Argikoen. Hori dela eta, eskaintza berri batzuetan pentsatzen hasiak dira. Urtea amaitu baino lehen

aurrez eraturako talde batzuentzat ibilbide gidatu batzuk eskaini nahi dituzte. Talde horiek ikasle, jubilatuek edo haur txikiek eratuak izan litezke. Azken horiek izango lirateke, agian, ibilaldi hauetan hobekien pasako luketenak, haur askorentzat ibaian edo itsasoan ibiltzea lehen esperientzia izango bailitzateke. Ibilaldi horiek ez lirateke mugatuko gure herrira. Enpresakoak kontaktuan jartzen ari dira Deba, Urola, Goierri eta Tolosaldeko hainbat erakunderekin eskaintza honen berri emanaz.

Ibilaldi gidatu hauetaz gain, datozen urteetarako egun guztiko eskaintzan ari dira pentsatzen. Hori herriko hainbat erakunderen arteko elkarkidetzara lana izango litzateke. Agian gure herria gure turistiko bihurtzeko beste pauso bat.

◀ JUAN LUIS ROMATET



Auto-konponketak

**ELKAR**

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



**PEUGEOT**

**Rosi**  
garbiketak

- \* Etxeak eta dendak
- \* Enpresa eta auzo lanak
- \* Europa garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A  
Tel. 861670



## Udako turismo maila mantendu egin da 2000. urtean

Azken aste hauetan irakurri eta entzun denez, udako hilabeteetan Euskal Herria bisitatu duen turisten kopuruak beherakada kezkarri bat izan omen du. Gure herriari dagokionez, Zumaian izan ditugun kanpotarren kopurua aurreko urteetako baino txikiagoa izan da, baina hala ere ez da hain beherakada nabarmena izan. Turismo Bulegoko datuei jaramon eginez gero, 3.000 lagun baino gehiago pasatu dira bertatik, 1999. urteko antzeko kopurua. Kanpotar hauek gustura joan dira gainera Zumaia-etik. Agian hemen izango ditugu datorren urtean berriz ere bisitan.

Turismo bulegotik makina bat jende pasa da azken hilabeteotan. Bertatik pasa diren gehientsuenak, estatu espainiarretik etorriak izan dira, nahiz eta lehen hilabetean euskaldunak izan diren kontsulta gehien egin izan dituztenak. Kopuru aldetik, Euskal Herriko beste udalerrietatik etorriak izan dira bigarrenak. Estatu frantziarreko bisitariak eta ugari izan dira udan zehar, eta zer esanik ez italiarrak. Kuriositate moduan aipagarria da urtaro honetan zehar urruneko hainbat herritako turistak ere izan ditugula Zumaian: japoniarrak, australiarrak, hegoafrikarrak, errusiarrak, finlandiarrak... Malasiar bat ere izan dugu bisitari Zumaia uda amaieran.

Bulegotik pasatu diren bisitari ia denek herriari buruzko informazioa eskatzen zuten eta gehienbat lo

egiteko lekuen berri nahi izaten zuten, beti ere ostatu merke edo landa turismoko etxeetan. Abuztuko egun batzuetan ezin izan da leku librerik aurkitu Gipuzkoa guztian eta Bizkaiko mendebaldean dagoen Karrantzaraino joan behar izan dute Zumaia-ara etorriek.

Zumaia bisitatu duten ia turista denek oso irudi positiboa eramaten dute beren jaioterrira, gehienbat hemen eskaintzen zaien janariarengatik. Hala ere, ez da dena positiboa izan, keza batzuk ere azaldu baitituzte. Azaldutako kexetako bat Beobiden museoaren itxita egotearena da, bisitari bat baino gehiago hurbildu baita Zumaia-ara espreski museo horretara bisita bat egitera. Kanpotarren beste keza bat herriko elizak ezin bisitatzearen izan da, hauek beti ere itxita aurkitzen baitzituzten. Agian atzerriko herrien eredia hartu beharko genuke eta udako hilabeteetan herriko elizak zabalduta eduki, nahi duenak begirada bat bota dezan.

Askotan ez dugu ulrtzen nola etortzen diren hainbat kanpotar Zumaia bezalako herri txiki batera. Arrazoiak bat mendia

eta itsasoa dugun herri bat gairela izan daiteke. Agian guretzako normala dena, kanpotarrentzat guztiz ezohizkoa da. Ez dira gutxi izan fax edo telefonoaren bitartez urrunetik deitu dutenak informazio eske interneten Zumaia-ko web orria gainbegiratu ondoren.

Internetarekin edo internet gabe gero eta jende gehiago ari zaigu hurbiltzen herrira. Hau positiboa izango den ala ez etorkizunak esango digu.

◀ JUAN LUIS ROMATET



**xirula**

Argazki eta bideo erreportaiaik  
Errebelatzeak  
Kamarak  
Musika

Erribera kalea z/g Tel. 861705

**ERTZ** informatika

ORDENAGAILUAK  
CD-ROM  
INTERNET

Eusebio Gurrutxaga, 6 Tel. 943 14 33 95



## Sanmielak euripean

Ez dute zorte handirik izan Artadiko festa batzordekoek iraileko azken asteburuan izan den eguraldiarekin, Sanmielak ia pikutara bidali baititu. Euria barra-barra, jende gutxi auzoan eta gainera Azpeitian Kilometroak. Hala ere, ez da jaigiroa falta izan Artadin. Lehen egunetan behintzat izan ziren ekitaldiak, hala nola, Agirre eta Lazkano bertsolarien saioa eta txakolin dastaketa. Jende gutxi, baina edateko gogoa ez zen falta izan. San Miel eguna zela eta, ekitaldi erlijiosoak ere izan ziren, irudian agertzen den bezala. Kirolak ezin falta, inork noiz bukatuko den pelota partidua buru dela. Aurtengoan 25 punturaino besterik ez zuen irau, nekatuak ote zeuden? Festek asteburu guztian irau zuten auzoan, pena eguraldiak jaigiroa zertxobait izorratzea.



**ekin**  
elektrizitatea, s.l.

instalazio elektrikoak  
instalazio musikalak  
antenak - parabolikoak  
akumuladoreak  
portero automatikoak  
telefonía

Televés  
Instalador  
Oficial

MoviStar

MoviLine

Erribera, 18  
20750 Zumaia (Gipuzkoa)  
Tel./Faxa 943 - 143097  
629 - 450777

CANAL+

SATELITE  
CANAL DIGITAL

Arantza Aramendi  
**EGUZKI**  
G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 25 behea  
943 86 22 65 - 609 46 56 37

# 2020, etorkizuneko Zumaia

*Datozen urteetan herriak izango duen garapen urbanistikoaren lehen zirriborroa jarri du Udalak ikusgai Oxford aretoan. Bertan ikus daitekeenez, hemendik 20 urtera Basustako kaleren batean bizi gaitezke, orain baratzeak dauden tokian, Torreagan lan egitera Egurko ondora joan, eta Retegiren partida ikustera, oraindik erretiratu gabe egongo baita hau, estazio aldeko frontoira.*

Arau osagarrien berrikuspena da Udalak martxan jarri duena. Arau hauek, hirien Plan Orokorren herrietako baliokideak, lege, erreglamendu eta Udalaz gainetiko Planek ematen duten eraentza (errejimen) orokorretik abiatuaz terrenora egokituriko eraentza zehaztua gauzatzeko erabiltzen dira.

Luciano Pagoaga udal arkitektoak azaldu digunez, Udalean babes ofizialeko etxebizitzak sustatzeko

aldaketa batzuk egiteko asmoa baino ez zuten hasera batean. 93an onartu zen aurreko berrikuspena, eta printzipioz hemendik pare bat urtera ekin behar zioten hurrengoari. Baina Urolako Lurraldearekiko Zatikako Plana indarrean sartzeaz dagoenez, eta 93tik hona hirigintzako lege nagusiek oinarritzako aldaketak izan dituztenez, egungo arauak zaharkituta gelditu direla ikusi dute, edozein obra burutzeko araudian aldaketak egin beharra izango dutela, eta oraingo aldaketak prestatzeko egin duten lanarekin berrikuspena hasteko adina badutela ikusirik, martxan jartzea erabaki dute.

Arau hauek herriko lurren sailkapena egiten dute batetik, herriaren hazkunde eredu finkatuz: hiritarrak edo jada eraikita daudenak, hiritargariak edo eraikitze aprobeztatu daitezkeenak eta hiritarrezinak edo eraikitzetik babestu beharrekoak.

Bestetik, banaketa areak kalifikatzen dira, hau da, partzela bakoitzari

emango zaion erabilera finkatzen da: etxebizitzak egiteko, industriarako, zerbitzuetarako, ekipamenduetarako edo azpiegituretarako.

Azkenik, plangintza honetatik ondorioztatzen diren onura eta kargen banaketarako eta plangintzaren exekuziorako irizpide orokor batzuk arautzen dira. Irizpide horiek gerora zatikako planen, udal ordenantzen eta urbanizazio planen bidez zehaztuko dira.

Lucianok azaldu digunez, berrikuspen prozesuak lau urte inguru irauten du. Eta konplikatu xamarra ere bada. Lehenengo pausoa irizpide orokor batzuk proposatzen dituen aurkezpen dokumentua osatzea da eta bigarrena dokumentua jendaurrean erakustea. Gero, teknikariek dokumentu landuagoa gauzatzeko dute aurrerapena eta jendearen iradokizunetan oinarriturik eta Udalak hasierako onespena emango dio. Jendaurreko bigarren erakustaldia dator hurrena, berriro ere teknikariek dokumentua



Karmengo Ama, 14  
E-20749 Arroa (Gipuzkoa)  
Tel/Fax: +34 943 14 83 06  
e-mail: bakun@euskalnet.net

finés  
francés  
euskara  
inglés  
español  
catalán  
suomi  
basc  
català  
finnois  
francés  
anglés  
catalán  
francés  
castellano  
finlandés  
inglés  
basko  
catalán

**Bakun**  
ITZULPEN ETA ARGITALPEN  
ZERBITZUAK S.L

**AXIER KIROLAK**

Ortega y Gasset, 2  
Tel: 943 86 22 06

**OSKARBI  
KIROLAK**

Alai Auzategia, 14 behea  
Tel: 943 14 31 12

berregin eta Udalak behin-behineko onespena ematea. Udalak Aldundira bidaltzen du, eta honek Eusko Juarlaritzako Lurralde Antolaketarako Batzordearen eta Kostasen informesak kontuan harturik behin betiko onarpena eman edo Udalari aldaketak sartzeko eskatuko dio.

Orain arte egin dutena aurkezpen dokumentua prestatu eta jendaurreko lehen erakustaldia irekitzea izan da.

Dokumentua lau liburuk osatzen dute: herriaren ezaugarri fisikoen azterketa egiten da lehenengoan, ezaugarri soziodemografikoa (biztanleria, okupazioa, zerbitzuen eskaintza, e.a) bigarrenengan, arloko araudia eta politikarena hirugarrenengan eta hirigintza garapena (fitxa urbanistikoa guztien banan-banako txekoarekin) laugarrenengan.

### Etxebizitzak

Forma kontuak argitu ondoren, edo erabat nahastu baino lehen, edukiei buruz hasi gara Lucianorekin. Plangintzaren nondik norakoak azaltzeko 2020ko Zumaia irudikatzen duen plano bat erabiltzen du oraindik onartu gabe dagoela eta onartuko dena baina urrunago doala abisatu ondoren.

“Urolako Zatikako Lurraldearekiko Planak dioenez, Zumaia, Getariak eta Zarautzek ez bezala, zabaltzeko tokia badu oraindik, eta datozen hamasei urteetan guztira 1.900 etxebizitza berri egingo direla aurreikusten du” dio Lucianok. Hazkunde horren aurrean ekimen publikoa eta babes ofizialeko etxebizitzak sustatzea izango da arau berrien helburu nagusietako bat, eta zenbait zonatako urbanizazioa mugatzea beste bat. Lehenengo aspektuari dagokionez, lurzorua erreserbarako proiektu bat gauzatu du Udalak, eta Otalora eta Basustako lurak erosteko lehentasuna bereganatu du. “Zatikako Planak ezartzen zuen bezala, Zumaia Otalora eta Basusta aldera zabalduko da batik bat, etxebizitza berrien %70 hor joango da, eta lurra Udalarena izango



denez, hazkundearen aspektu asko kontrolatu ahal izango ditugu” esplikatzeko du. Bigarren aspektuari dagokionez, Talaimendirako urbanizazioaren muga oraingo txaleten parean jarriko dute arauak eta Algorri alderakoa Albizurin.

Datozen bost urteetan Otalora, Carmelo Unanueren terrenoak eta Etxe-Ona inguruko zonan egingo dira etxebizitzak.

Otaloran jadanik Udalak erosiak ditu terreno batzuk “Zumaia Lantzen”en bidez. Guztira 240 etxebizitza egingo dira. Gutxienez 160 izango dira babes ofizialekoak, eta horiez gain, adinekoentzako etxebizitza tutelatu batzuk jartzearen proiektua ere ari dira aztertzen.

Carmelo Unanueren terrenoei dagokienez, Albizuritik hasita elizara begira joko duen etorbide zabala egingo dute. Elizaren zokaloaren parean, Zelaiaren terrenoetan, etxer inguraturiko plazoleta irekiko da, frontoi txiki batekin. Zelaiaren terrenoen inguruko azua ez da oraindik konpondu, baina abendurako espero dute epaia, eta berehala hasiko omen dira eraikitzen.

Etxe-Onako zonan, berriz, Ortiz lekuz aldatu eta Gau-Txoriraino beteko dute. “Etxe-Onakoek hotela jartzeko proiektua ere bazeukaten, baina azkenean ez dira animatu, eta guztiak etxebizitzak izango dira” komentatzen du.


2005etik 2010era bitartean, berriz, Odieta, Talaimendiko magala eta Basustako urbanizazioa aurreikusten dituzte.

“Frontoia tapoi urbanistikoa da” dio “Odieta kasik inkomunikaturik gelditzen da”. Frontoia bota eta herri eskolaren ondoan altxa nahi dute berria, eta luzera bikoitza izango lukeen plaza, Odieta etxe zaharren tokian eraiki litezkeen eraikinen erdi zirkulu batekin errematatu. “Ideia hiru sektorearen kirol sistema orokorra eta Eusebio Gurrutxaga Plazaren inguruan zerbitzuen sistema orokorra eratzea da. Lehenengoa kiroldegia, futbol zelaia, tenis eta padleko pista, herri eskolaren instalazioak eta frontoiarekin osatuko litzateke; bigarrenkoa, berriz, turismo bulegoa, Gurutze Gorria eta Udalaingoaren eraikina, Hogarra eta Forondari, Batzoki zaharrean egingo den Udalaren ekipamendu osagarria eta Torreberri egingo den Forondaren ekipamendu osagarria gehituz” esplikatzeko du.

Talaimandiren magalean oraingo duplex-en jarraipena egingo litzateke mataderoaren pareraino, beste aldetik plaza gorriko etxearen ondoan eraikiz.

Basustako urbanizazioa da egiteko gelditzen direnetatik handiena. Lehenengo bi poligono egingo dira eta ondoren txaletak, eta lurak gorantz egiten duen tokian pasealeku bat egingo da. Hemen ere babes ofizialeko etxebizitzak aurreikusten dira. Baina luze joko duen proiektua omen da.

Zientzi fikzio pixka bat egiteko eskatzen diogu Lucianori, eta etxe horiek guztiak egin eta beteko balira Zumaiak zenbat biztanle izango lituzkeen kalkulatzeko. "14.000 edo 15.000 inguru. Baina, badakizu, ez da kontuan hartzeko moduko datua" dio irrifarrez.



**Industria, ekipamenduak eta azpiegiturak**

Industria arloan, Gorostiaga eta Geltokiko eremuak okupatu ondoren Oikia ondoan dauden 6. sektorea (Guascor) eta 7. sektorea (Xey) betetzea da helburua. "93tik hona industriarako lur erreserba %57 handitu du Udalak eta horrekin hurrengo urteetarako behar guztiak asetu ditzakegulakoan gaude" dio Lucianok. Ez dituzte lur berriak erosiko beraz, baina zenbait lantokiren kokapena aldatzeko asmoa badute. "21. ADOa desklasifikatu egin dugu, eta Ucin, Torreaga eta Urpek Egurko atzean jarriko dituzte pabilioi berriak, orain dauden lekuan etxeak egiteko. Ortiz ingurua ere lur industrial bezala kalifikatzen dute arau zaharrek, baina hori ere desklasifikatu eta etxeak egingo ditugu bertan. Ortiz ere beste nonbait jarriko da" dio.

Ekipamenduei dagokienez, lehen aipaturiko kiroletarako eta zerbitzuetarako sistema orokorrez gain Anbulategia (Gernika Pasealekuan bertan) eta San Joan Egoitza (Karmeldarren Leikametxea) handitzea aurreikusten da eta Abere Hiltegiaren eraikina museotarako eraberritzea, udal brigada eta Parke Mugikorra handik

atera eta Geltokiko poligonoko pabilioi berrira eramanaz. Errepidearen eskuin aldera, Guascor-etik Santioko ibarbidera artean aparkalekuak eta ekipamendu batzuk egiteko ideia ere nahikoa garatuta dago. "Gero kontuan hartu behar da legeak urbanizazioak garatzerakoan hauek ekipamendu

batzuk izan behar dituztela ezartzen duela, eta hortik ere hainbat ekipamendu berri etorriko dira" gaineratzen du Lucianok.

Ur Beltzen Araztegia eta Iberdrolaren Indarretxe Berria dira azpiegitura arloan aurreikusten diren berrikuntza garrantzitsuenak, biak ere epe laburrean gauzatu beharrekoak. "Bariantea

ere hor dago, plangintza hau guztia burutu ahal izateko lehenbailehen egin beharrekoa. Diputazioak partida bat gordeta dauka, hiru bat urte aritu dira proiektua prestatzen, eta ez dut uste asko gehiago beharko dutenik. Behin obrarekin hasiz gero, urtebetean egiteko modukoa da" jarraitzen du. Autopistarekin lotune berria ere aurreikusita dago Kondekua eta Pollos Oikia aldean, Meagako errepidearekin lotzeko eta zatitutako errotonda bat egitea ere bai, San Migeleko bidegurutzearen parean, bai kirol portura, bai Santioko hondartzarako sartu-irtena errazteko.

Badaude bestelako proiektuak ere: Gernika pasealekutik hasita Egurko ingurutik buelta emanda Basustan barna trenbidearen ondotik Txikierraino jaitsiko den bidegorria, Santiotik Orruarainoko espaloia, labarrak edota Beduako marismak babesteko planak...

Arau osagarrien dokumentua Oxforren egongo da ikusgai datozen bi hilabeteetan, Udalak oinarritzko informazioa jasotzen duen triptiko bat ere banatu du 2020ko Zumaia irudikatzen duen plano eta guzti. Ikus daitekeenez, ideiak eta proiektuak asko dira, eta informatu eta herritarren iritzia jaso nahi ditu Udalak. ◀ **ANTXOKA AGIRRE**

**EGUZKI PUB**  
Koktel bereziak  
Basadi Auzategia, 9-A 2-B

**BASUSTA ERRETEGIA**  
Pantxita Etxezarreta, 25 Tel. 862073

**EGOKI**  
Erloju eta bitxidenda  
E. Gurrutxaga plazan

**KAFETEGIA GAROA JATETXEA**  
TXOMIN AGIRRE KAIA  
TEL. 943 86 21 81

**ENARA, S.L. INPRIMATEGIA**  
Amaiako plaza, 15  
Tel. 862458

**expert ELEKTROGAILUAK**  
MERTXE AIZPURUA  
Etxezarreta, 6 Tel. 861078

# Baleike 15

15? Dagoeneko 15 urte? Ez, ez gara hain zaharrak! Gure proiektu berriaren izena besterik ez da hori: Baleike 15, hamabostean behin kaleratuko dugun aldizkaria, hain zuzen ere. Sei urteren ondoren, iritsi da guretzat ere aldaketa sakonak egiteko garaia, eta hori izango da aldaketa guztien oinarria: urtarrietik aurrera Baleike hamabostean behin jasoko duzu etxean. Ondo, ezta?

Sei urte erraz esaten dira, baina sei urte hilerok hilerok borondatez aldizkari bat argitaratzen aritzeak asko erretzen du. Eta hasieran gogoz betetako ikasle batzuk ginenok langile bihurtu gara, eta, beraz, beste dinamika batean murgildu gara. Galdera hauxe zen: zer egin aldizkariarekin? Horrela ezin genuen jarraitu eta bi alternatiba planteatu genituen: ixtea (hori ez!!) ala profesionalizatzea, honela aldizkariaren etorkizuna proiektu bezala ere sendotuz.

Baina profesionalizatzea ez da erraza hilean behin argitaratzen den herri aldizkari batentzat. Beraz, maiztasuna aldatzea erabaki genuen: urtarrietik aurrera hamabostekaria argitaratuko dugu, hau da, Baleike hamabostean behin jasoko duzue etxean. Horrek, ordea, bestelako aldaketak ere ekarriko ditu, oso sakonak gainera. Horieta garrantzitsuena, aldizkaria dendetatik desagertzea izango da, harpidedun egiten direnei bakarrik



bidaliko baitzaie. Hil honetan bertan hasiko da harpidetza kanpaina martxan, beraz ez galdu aukera!

## Antolaketa berria

Esan bezala, aldizkaria hamabostean behin kaleratzeak lan egiteko era guztiz aldatuko du: hemendik aurrera lau langile izango ditu aldizkariak, egunean lau orduz arituko direnak. Hauetatik bi kazetariak izango dira, beste bat maketatzaileria eta laugarrena administrazioaz arduratuko dena. Kazetariak Antxoka Agirre eta Juan Luis Romatet izango dira, maketatzaileria Argi Aizpurua eta kudeatzailea Esther Etxeberria. Horiek izango dituzue, beraz, erreferentzia zuzena aurrerantzean.

Horregatik hartu dugu lokal berria lanerako, Forondako ordutegiarekin ezin baikinen moldatu horrelako lan bat aurrera ateratzeko, eta aurrerantzean Juan Belmonte kaleko 29. zenbakian dagoen bulegoan aurkituko gaituzue nahiko sarri, eta bestela 943-

861545 telefono zenbakian. Datu guztiak 3. orrialdean dituzue.

Etorkizunean, gainera, argitaratzailea ez da Zumaiaiko Gazte Batzordea izango, Baleike Kultur Elkarteak baizik. Horrela, administrazio aldetik izan ditzakegun arazo legalak saihestu eta aurrerantzean gure proiektua errazago egokitu ahal izango dugu. Dena den, saiaturiko gara aldizkaria argitaratzeaz gain kultur elkarte berri horretan bestelako jarduerak eta ekitaldiak antolatzen ere, baina hori denborak esan beharko du.

Aldizkaria erabat berrituko dugu kanpotik eta barrutik. Lehen erabakia eta agian sakonena orain arteko denda eta ohizko puntuetan ez saltzea izango da. Arrazoia honakoa da: dendetan saltzeak funtziona dezake hilabetekari bati buruz ari garenean, baina hamabostean behin argitaratzen den aldizkari bat litekeena da beti ez erostea, besteak beste, noiz ateratzen den jakitea ez delako hain erraza. Guri, berriz, erosle kopurua finkatuta



Foto Amertze

Erribera kalea, 6 Tel./Faxa: 861707

Galdona



Mendaro marinela, 1 Tel. 861117 -143346  
Juan Belmonte, 15 Faxa. 861330

GANBARA

Taberna

Juan Belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

izatea komeni zaigu, zabalpena ziur-tzeko eta horrela diru sarrerak hasie-ratik neurtuta izateko eta banaketa arazorik ez izateko. Harpidedunei postaz bidaliko zaie aldizkaria hamabostean behin, eta horrela etxean goxo-goxo jasoko dute erosten ibili beharrik izan gabe. Nola egin harpidedun? Orri hauetan bertan agertuko den harpidetza txarteleko datuak bete eta gure bulegora bidaliz lehenbailehen. Nolanahi ere, abendua bitartean harpidetza kanpaina izango dugu martxan. Adi egon, beraz!

### Egitura berria

Hilabetekariak hamabostekarira igarotzerakoan, ziurrenik lehen kezka hauxe izango da: Izango al da nahikoa gai aldizkaria osatzeko? Baietz uste dugu guk, ez daukagu zalantzarik. Hurrengo galdera hauxe izan liteke: Bai, baina nolakoa izan behar du hamabostekariak? Badirudi nahikoa onartuta daukagula hilabetekariak informazio hutsa baino zerbait gehiago eskatzen duela: erreportajeak, elkarrizketak, denborari lotu gabeko atalak... Astekariak batez ere albisteak jorratu behar dituela ere denok esango genuke. Epe laburrera erabilgarria izango den informazioa eman behar du astekariak. Eta hamabostekariak? Ba, bien arteko nahasketa. Hilabetekariak bezala, hamabostekariak orainaldiari hain lotuta ez dauden edukiak onartzen ditu baina, era berean, egunerokotasun hori harrapatu behar du, astekariak bezala.

Horregatik, Baleike berriak orain arte bezala informazioa eskaintzen

jarraituko du, baina askoz egunerokotasun handiagoa duen informazioa, landuagoa (kazetari profesionalak arituko baitira horretan) eta osatuagoa. Baina, horrez gain, beste atal batzuk berreskuratuko ditu atal berriak sortzeaz gain: inkesta fotografikoa esaterako, edo iritzi saila. Azken hau bereziki indartu nahi genuke eta horretarako zuek guztion parte hartzea behar-beharrezkoa da, zuen gutun eta iritziak beharko ditugulako. Beste atal batzuk desagertzeko bidean dira, komikia esaterako. Horrek mina eman digu, baina zaila da hamabostekari batean bi orrialdeko komikia argitaratzea. Honakoa erabaki dugu: Baleike komiki lehiaketarekin jarraituko dugu, eta urtean behin bertako komiki onenekin ale berezi bat argitaratu, baina hasiera batean urtean zehar ez da komikirik izango, bai tira komikoak, ordea.

Bestelako atal osagarriak ere izango ditu aldizkariak: haurrentzako lau orrialdeko gehigarri berezia argitaratuko da hilean behin, eta beste hainbesteko atala ingurugiroari buruz, Zumaia inguruan ditugun ibilbideak zabaltzeari arreta berezia jarritz.

Hau da azkar eta labur azalduta Baleike berriak emango duena. Ez ahaztu, ordea, zure laguntza ezinbestekoa egiten zaigula, bai eduki aldetik —zuk bidali edo proposatutakoak argitaratzeko— eta bai funtzionamendu aldetik, aldizkariaren zabal-kundea ahalik eta handiena izan dadin. ◀ **JOSU WALIÑO**

## Historia laburra

Sei urte eta erdi eman ditugu Zumaiako kaleetan, baina egoera ez da beti antzekoa izan. Gazte Batzordean jaio zen aldizkari hau, Zumaiako Institutuan maketatzen hasi ginen, guk orduan ordenagailurik ere ez genuelako. Gure lehen erosketak 20.000 pta. kostatu zitzaigun eskaner txiki bat eta maketatzen ikasteko liburu bat izan ziren, eta horrela abiatu ginen mundura, non eta zertan sartzen ginen ondo jakin gabe. Inprentan oraindik gogoan dute lehen aldizkari hura eraman genuen eguna; ai ama!, zer zen desastre hura! Baina ahal zen moduan aurrera egin eta urtebete geroago Forondako gela batean ginen, erosi berria genuen PC eskas batekin, Pixkanaka, Jaur-laritzak eta Foru Aldundiak ematen zituzten dirulaguntzez baliatuz, ekipamendu aldetik osatuz joan ginen, eta duela pare bat urte, lana behar bezala egiteko moduan ginen jada. Horrela, aldizkariari itxura berria eman eta azala koloretan argitaratzen hasi ginen. Aldaketa sakona askorentzat, aldizkariak itxura formalagoa hartzen zuelako. Ebolu-zioaren arazoak! Aurten azken saltoa ematea erabaki dugu: batetik, lokal propioa hartu eta alokatzea, hemendik aurrerako erritmoarekin Forondan lan egitea ezinezkoa zitzaigulako, eta bestetik, aldizkaria profesionalizatzea. Honaino iritsi ondoren lortuko ahal dugu!

### Gako nagusiak

- Baleike hamabostean behin argitaratuko da.
- Ez da ohizko tokietan salduko. Beraz, harpidedun egiten direnek bakarrik jasoko dute etxean.
- Lau langile arituko dira aldizkaria argitaratzen: bi kazetari, kudeatzaile bat eta maketatzaila bat.
- Aldizkariak eduki berria izango du: haurrentzako gehigarria, denbora-pasak, informazio zabalagoa, etab.
- Lokal berrian egingo da aldizkaria: Juan Belmonte 29 behea. Tel.: 943-861545.



**GAZTE, S.L.**

ELEKTRIZITATEA

**ARGIDENDA**

*Era guztietako instalazioak etxebizitza, fabriloi eta herriko argietan*

Izaga, 1 behea

Tel./Faxa: 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 24  
Tel. mugikorra: 908-143409

**BALAIKE**

2000ko urria 72 zenb.

Josu Arana  
eta Telmo  
Del Pilar  
-eskalada  
zaletuak

## "Rokodromoak esku-eskura jartzen du eskalada"

*Kiroldegian rokodromo bat jartzera omen doaz. Aspaldian nenbilen probatzeko gogoarekin eta oraintxe aukera. Izatez txikitan ere askoz hobeto pasatzen nuen arboletara igotzen baloia-ekin jolasten baino. Animatu eta eskalada mundu hori ezagutzen duten lagun batzuekin hitzordua jarri dut Kabi-n informazio pixka bat lortzeko.*

### ■ Zer behar da eskalada egiteko?

**TELMO-** Gazte batentzat garesti xamarra izan daiteke. Sokak 20.000 pzta inguru balio ditu, katu hankek 10.000, arnesak, gerrian jartzen denak, beste 10.000 eta espresak, paretean egoten diren txapei heltzeko 'engantxe'ek, 15.000 bat.

Gero gastu horiek konpartituak dira, eskaladara lagunekin joaten zara, eta soka batek eta engantxeek bi edo hirurentzako balio dezakete, baina minimo bakoitzak 40.000 pzta.

**Josu-** Nik uste dut hasteko garrantzi-tsuena instalazio bat edukitzea, rokodromo bat gertu izatea dela. Bulderra, horizontalean egiten den eskalada, teknika eta erresistentzia pixkat hartzeko oso ona da, eta irteerak egin eta gastuak konpartitzeko jendea ere bertan aurki dezakezu.

### ■ Eta fisikoki?

**J-** Gogoia. Ibili egin behar da bakoitzak dagokion maila landu eta pixkanaka progresatzeko, eta gogoia izanez gero ibili egiten zara.

**T-** Fisikoki erresistentzia da garrantzi-tsuena. Indar asko izan arren hamar metro igo eta besoak agarrotuta gelditzen bazaizkizu, ez zara gorago joango. Paretan zaudela errekupe-ratzen ikasi behar da. Eta erortzeko beldurrik ez da izan behar. Beti limitean zoaz eta askotan tokatzen da sokatik zintzilik gelditzea. Hori dena ibiltzeak ematen du.

### ■ Nola hasi zineten zuek?

**T-** Ni futboletik bota ninduten. Kontua izan zen San Telmo batzuetan hamabitan jarri zigutela erretiratzeko ordua eta sei kalera joan ginen. Total preferenteko ekipoko 18etatik etxera goizena joan zena ni nintzen, ordubi-tarako ohean nengoen.

Hemezortzi urterekin izango zen hori, eta ordurako hasita geunden alpinismo pixkat egiten kuadrillakoak Zigor Etxabe, Txafra eta hirurok. Txafak ere orduantxe utzi zuen balonmano, eta hirurok mendian federatu ginen.

**J-** Gu etxean beti ibili izan gara mendian. Aitak eskalatu egiten zuen. Federazioko ikastaro batean apuntatu ginen hiru anaiak nik hamairu bat urte nituela. Orduan oraindik katu hankak nahiko gauza arraroa ziren eta botekin joaten ginen eskalatzera, eta arnesaren ordez kotxeko gerrikoa erabiltzen genuen lehenengo

## GIZARTEKINTZA zentru soziala

### KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

• denontzat irekia

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Gizarte Zerbitzuertarako departamentua



igoeretan... Behin txirrintxa sartuz gero, zaila izaten da uztea.

### **Ze tokitan ibili zarete?**

**T-** Gu Joxemiten ibili gara asko, eta gero hemen inguruetan, Atxarte, Egino, Santa Barbara, Araotz. Pirinioetara ere askotan joan izan gara, baina kirol eskalada baino gehiago alpinismoa egin izan dugu han.

### **Ze diferentzia dago?**

**T-** Alpinismoan helburua gailurra egitea da, bideak ez du garrantzirik. Kirol eskaladan, berriz, pareta da garrantzitsuena. Bide bakoitzaren zailtasun gradua neurtuta egoten da, eta ahal den zailtasun handiena gainditzea da helburua.

**J-** 4. gradutik hasten da eta orain arte egin den zailena bederatzigarren gradu bat da. Euskaldun batek egin zuen, Iker Pou-ek Alemanian. 'Ekintza Zuzena'...

### **Asko ibiltzen al zarete?**

**T-** Nahi baino gutxiago. Uda honetan bastante ibili gara, bi astetan hiruna egun segido Joxemiten, eta gero Josu, Zigor eta hirurok Anaietera joan ginen baina hau fuerte dago eta ezin segi...


Normalean hiru astean behin edo egiten dugu irteera, eta negurako asmoa dugu hileroko Pirinioetara irteera bat egitekoa.

**J-** Gu ere antzera ibiltzen gara, hiru astean behin edo.

### **Nolakoak izaten dira irteerak?**

**T-** Joan den larunbatean Txindokira

joan ginen gu. Bederatzitan hasi ginen igotzen eta hamarrak aldera iritsi ginen Txemaren paretera. Ibon eta Josu ere gurekin etorri ziren eta han



gelditu ziren eguzkitan eserita. Gu hirurok bi ordu egin genituen gora eta beste bat behera. Arista ondoan pare bat ordu bazkaltzen egin eta laurak aldean Zumaiara buelta.

**J-** Guk ere gehienetan egun pasa egiten dugu, baina asteburua libre badago, asteburu osoa Pirinioetan edo Espainiako eskalada eskolaren batean. Eskola horiek pareta garrantzitsuen inguruetan eratzen dira, bideen krokisak eta behar den informazio guztia izaten dute bertan, eta baita gaua pasatzeko tokia ere. Oso giro ona egoten da. Egunez eskalatu eta iluntze aldera mendizale jendearekin elkartu, herrira jeitsi, trago batzuk hartu...

### **Zein da egin duzuen eskaladarik politena?**

**J-** Nik uste Naranjo de Bulnes. Kriston parajea da.

**T-** Balaituseko haitza. Gu pirineistak gaituk.

### **Eta zailena?**

**J-** Maila altuenekoak Azpeitiko kanterako 'caetenene' eta 'nasteporraste', 7b+ mailakoak biak. Luzeena, berriz, lehen esan dizutena, Naranjo de Bulnes. Mendebaldeko aurpegiak 500 metroko igoera dauka, eta lehenengo aldiz joan ginenean hamairu ordu pasa genituen. Gainera "martes y 13" zen. Iritsi aurretik ilundu egin zigun, eta torroi modukoa zenez oinez jaitsi ezin, ilunpetan rapelatzea ere ezinezkoa, eta goian egin behar izan genuen gaua kriston hotzarekin. Hurrengo egunean jaitsi ginenean denak apuratuta zeuden gure zain.

**T-** Ni 6b batean ia larri ibiltzen naiz, baina oraindik gazteak gara.

### **'Caetenene', 'nasteporraste'... izen kuriosoak dituzte igoerek.**

**T-** Bai, irekitzen duenak jartzen dio bideari izena. Bidearen zailtasun gradua ere irekitzen duenak proposatzen du, eta gero atzetik datozenak konfirmatu behar dute.

**J-** ... Madrileko Patones eskolan badago sektore bat 'el muro erotico' deitzen diotena. Bertako bideen izenak aurki ditzakezun porno-erotikoak dira.

**T-** Joxemitekoak ere halakoak dira: Ixilaldikadak, Injurias al rey, Se Lokago, Diarrea...

**J-** Garai baten denek andregaien izenak jartzen zituzten eta Atxarten

*Gure txokoa*

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

San Pedro kalea

English School  
**Harvest**

San Jose, 11 bis Tel. 143334



**BALEIKE**

2000ko urria. 72. zenb.

denak, que si la Maria, que si la Elena, que si la Leire... dira. Orain denak 'pasando de las novias' eta kriston izenak jartzen dira.

**B Arriskutsu fama dauka eskaladak, horrela al da?**

**J-** Kontuz ibiliz gero ezin daiteke minik hartu. Eroriz gero sokatik zintzilik gelditzen zara. Kirol eskaladan txapak jarrita daude eta ez duzu engantxatu besterik egin behar, denbora guztian aseguratuta zoaz. Alpinismoan bideak errazagoak izaten dira, baina seguruak norberak sartu behar dituzenez arrisku-tsuagoa izan daiteke.

**T-** Kirol eskaladan ere igotzeko errezenak dira arriskutsuenak eroritakoan. Zenbat eta irtenune gehiago, errazago igo zaitezke, baina erortzean irtenune horien kontra kolperen bat hartzeko posibilitate gehiago dago.

**B Hartu al duzue inoiz kolpe latzik?**

**J-** Kolpe bakarra, Azpeitiko kanteran. Txapak oso zahartuta zeuden, orain dena berri dute, eta soltatu egin zitzaidan bigarrena. Lehenengoa beheregi zegoen eta zazpi metro egin nituen lurrera. Baina eskumuturra bakarrik hautsi nuen.

**T-** Nik ez dut kolperik hartu. Alpinismoan 'vuelo' batzuk bai. Aurretik doana azkenengo segurotik bi metro gorago irristatzen bada, lau metro joaten da behera... eta soka hanketan kateatzen bazaizu, ba, buruz bera gelditzen zara...

**B 300 metroko altueran, eta bi harriri helduta; zenbait ez zaio oso tentagarria irudituko.**

**T-** Norberari gustatzea da inportantea... Egia da sufritua dela, eta batzuetan larri xamar ere jartzen zara, baina abentura hutsa da. Eta

gora iritsitakoan oso momentu onak izaten dira.

**J-** Superazio kontua da. Pauso bakoitza korapilo bat da, eta askatzeko gai izan behar duzu aurrera egiteko. Pentsatu, bat eta bestea probatu, indarra egin, e.a. Azkenean desafio txikien sekuentzia handia da igoera.

**B Jende asko al dago Zumaian eskalada egiten duena?**

**T-** Pioneruak Llavori, Paco, nere osaba eta hauek izan ziren, Picos de European ibili ziren... Gero Apolok, Larregik eta kuadrilak ireki zuten Joxemite...

**J-** Alpinismoa jende gehiagok egiten du, baina kirol eskalada dozena bat edo ibiliko gera: Oscar Blanco eta Raul Barroso 'Jato', Zigor Etxabe, Txafila eta Telmo, ni bi anaiekin... Xabier Irigoienek ere azken urtean asko matxakatu du.

**J-** Gero neska bakarra dago, Nerea Iztueta.

**T-** Beñat eta Ioritz anaiak ere bai. Horiek denean ibiltzen dira, paipua, espeleologia, arroil jaitziera...

**B Lokal bat ere baduzue.**

**J-** Joan den urteko ekainean hasi ginen elkartzeko. Joxemite berrekipatu beharra zegoela komentatu genuen geure artean eta bilera bat antolatu genuen hementxe, Kabin. Hamar bat lagun azaldu ginen, lehen aipatu-takoak.

Bastante egun eman zizkigun Joxemiten bideak garbitu eta txapa berriak jartzeak, bide berriak ere ireki genituen, eta oso giro ona sortu zen.

Elkarrekin irteera batzuk ere egin genituen, eta hala genbiltzala guk

'Luaki' ondoan daukagun lokal batean entrenatzeko instalazioa jartzea okurritu zitzaigun. Tableroak eta perfil metalikoak erosi, presak erosi beharrean silikona eta poliesterrarekin geuk egin eta bakoitzak diru gutxi jarrita pusketa txiki bat montatzea lortu genuen.

**B Nola funtzionatzen du lokalak?**

**J-** Dirua jarri zuen bakoitzak giltza dauka eta nahi duenean sartzen da. Ez dago bestelako araurik.

**T-** Batzuetan ordua jartzen dugu eta ahal dugun guztiok azaldu. Joko batzuk egiten ditugu, bakarrik entrenatzen zarenean egin ezin direnak. 3+3a adibidez: batek hiru paso aukeratzen ditu, lagunak hiru horiek egin eta beste hiru aukeratu, lehenengoak sei horiek egin eta beste hiru aukeratu, e.a.

**J-** Aurtengo udan beste pusketa bat montatu dugu. Jende berria sartu da, bakoitzaren lagunak eta horrela, eta orain hogeit hamar bat izango gara.

**B Rokodromoa ere laster dugu herrian.**

**T-** Aspaldiko eskaria da. Duela hogeit hamar urte eskatu zuten, duela hamar urte, eta duela zortzi urte. Guk lokalarekin hasi ginenean eskatu genuen, ordurako kiroldegian ere bazuten asmoa, eta azkenean jarri da martxan.

**J-** Oso jarrera ona topatu degu Udalaren aldetik. Proiektu ezberdinen artean aukeratzekoan gurekin kontatu zuten, guk ere aurrekontu batzuk lortu genizkien... nahiko rokodromo majoa izango dela iruditzen zaigu.



Alai auzategia, 2  
Tel. 943 14 33 24



Erribera kalea Tel. 861523



San Telmo, 12  
Tel. 860760

**3 Lehen aipatzen zenuten Rokodromo bat izatea oso interesgarria dela.**

**J-** Ohiko paretak baino eskuragarriagoa denez jendea errazago hurbilduko da eskaladara. Progresatzeko ere oso egokia da. Guk Joxemite daukagulako, baina bestela irteerak hiru astean behin egiten ditugu. Rokodromora berriz aste barruan ere joan zaitezke.

**T-** Ikastaroak ere montatuko dira, eta kiroldegikoei eskaladako euskal ligaren jardunaldi bat bertan hartzea proposatu diegu. Nik uste dut honekin guztiarekin eskaladak gora egingo duela Zumaian.

**3 Eskalada Taldea eratzeko asmoa ere ba omen duzue.**

**J-** Lokalaren inguruan ikusi dugu badagoela jendea Zumaian ohiko kirol-tatik kanpora mugitzen dena. Talde bat egin eta irteera batzuk antolatzeko ideia daukagu: eskalada, espeleologia, arroil jaitsiera eta estilo horretako kirolekin. Oraindik ideia bat besterik ez da, baina seguruenen zerbait egingo dugu.

◀ **ANTXOKA AGIRRE**

1. Harteka tarteka	IV <sup>o</sup>
2. Sudurra (The nose)	IV <sup>o</sup>
3. Diarrea	V+
4. Etziok patzeik	6b
5. Sé lokago	IV+
6. Ezekielen profezia	V <sup>o</sup>
7. Injurias al rey	6a
8. Apologia terrorista	6a+
9. Ixilaldikadak	7b
10. Kantauri	6a
11. Ze izen?	6c

12. Separate reality*	5.7
13. The clean climbing concept*	5.8
14. Lagunak eta ni*	5.8
15. Hatzam...adaka*	5.10b

\* Friend-ak b... Jituzte

**Joxemite**

Duela 20 urte ireki zituzten zumaiaiko eskalataile batzuk Joxemiteko lehen bideak. Joan den udan, orain dabilen taldeak bide guztiak berrekipatu zituen. Udalaren dirulaguntzatxoa izan zuten material berria erosteko. Gipuzkoako Mendi Federazioak, bestalde, laguntza teknikoa eman zuen. Hareharria da eta xaflak ditu heldulekutzat. Pareta gehienek, kareharrizkoek,

besoen lana eskatzen dute, baina Joxemiten hanketako teknika eta indarra da gehien landu beharrekoa.

**Rokodromoa**

Azaroan hasiko dira muntatzen eta Gabonetarako listo egongo da. "Panelak preparatuta ekarriko dituzte eta gero muntaia azkar egingo dute" dio Franek. Bi pieza izango ditu. Bulderra harmailen azpian jarriko

dute, pistaren ezkerreko hormaren kontra, eta lau metroko zabalera eta hiru metroko altuera izango du. Honekin izkina egiten jarriko dute pareta, sei metroko zabalera eta hamabi metroko altuera izango duena. Konglomeratuko txapak burdinezko estruktura handi batek eutsiko ditu, eta guztira 500 presa jarriko dira. Zumaiaiko Tankup enpresak egingo du

lan guztia, bi miloi eta erdiko aurrekontuarekin. Muntaia bukatzen denean ikastaroak antolatzeko asmoa azaldu digu Franek eta baita datorren urtean pareta bikoiztekoa ere. Zabal-ketarako miloi eta erdiko eskaria eginda dago Udalarri.

**ITSASKI**  
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g  
Tel. 143058

**ITSY-BITSY**  
SCHOOL OF ENGLISH

Ingeleseko klaseak maila guztietan  
Cambridgerako azterketak  
Basadi, 2 Tel. 862373

**AIZMAN-KOS S.L.**

**SANEAMENDU ETA ERAIKUNTZA MATERIALAK**

Iraeta auzoa z/g 78 postakutxa  
Tel. Faxa: 148124  
20740 IRAETA- ZESTOA

## Asteburu mikologikoa



Urtero gertatu ohi den legez, urriaren amaierarako Natur Taldekoek Asteburu Mikologikoa prestatu dute. Aurtengoa urriko azken asteburuan ospatuko da, urriaren 27tik 29ko asteburuan. Aurreko urteetan bezala, ekitaldi ugari aurkituko ditugu Asteburu honetan. Lehenik eta behin, ostiralean Kofradiako plazatxoan pintxo dastaketa izango da. Pintxo horiek perretxikuz eginda egongo dira, eta herriko tabernariak izango dira prestatzeaz arduratuko direnak. Larunbatean perretxikuak biltzeko irteera izango da. Goizean goiz irten eta inguruko edo urruneko parajeak bisitatuko dira ahalik eta perretxiku arraroenak, edo zergatik ez, goxoenak biltzeko. Goizez bildutako perretxikuak arratsalde aztertuko dituzte

Aranzadiko adituek, ondoren igande guztian zabalik egongo den erakusketa prestatzeko. Erakusketa hori izango da igandeko ekitaldia, eta goiz eta arratsalde Odieta pilotalekuan zabalik izango da.

Oraindik ere Asteburu Mikologikoa prestatzen ari dira Natur Taldekoak. Zerbaitetan laguntzeko gai zarela uste baduzu, edota naturaz interesaz zaizula eta zerbaitetan lagundu nahi baduzu, ziur izan zure lana gogo biziz hartuko dutela taldekideek. Natur Taldearen lokala udaletxearen atzealdean aurkitzen da. Azaldu zaitez astelehen batean gaueko 9etan eta ikusiko duzu ateak zabalik izango dituzula. Anima zaitez!

◀ JUAN LUIS ROMATET

## Urola ibaiaren egoera salatuz

Gipuzkoako Foru Aldundiak enkargatutako txosten batean agertzen denez, Gipuzkoako ibai guztiek egin dute onera azken urte hauetan. Beno, denek ez, badago eta gure ibaien artean ardi beltz bat: Urola ibaia. Beti ere ibai garbitzat jo dugun Urola azkenaldi honetan nahiko pott eginda dago. Ez, hala ere, ibilbide guztian zehar, Azpeitia eta Lasao inguruan nahiko garbi baitago ibaia. Arazoak Aizarnazabaletik Zumaiara doan tartean daude, egoera guztiz kaskartu baita inguru horretan. Egoera hori salatuz, Zumaiako Natur Taldekoek ekintza bat antolatu zuten pasa den udako: Urolako Jaitsiera Bizikletaz. Ekintza horren bidez, talde ekologistako kideek ibaiak zeharkatzen dituen herri bakoitzak jasaten dituen arazo ekologikoak salatu nahi izan zituzten, herri bakoitzean pankarta bana jarriz. Horrela, Azkoitian zabor-tegiarekin eta Zestoan harrobiarekin dituzten arazoak aipatu zituzten kartelen bitartez.

Zumaiari dagokionez, arazoa inguruko herri batean kokatzen da, Aizarnazabalen. Herri horretan bihurtzen da ur gardena zikinkeria hutsean. Natur Taldekoen esanetan, kutsadura horren erruduna bertako paper enpresa bat da, Opuia. Hori dela eta, enpresaren sarreran "Urola ez da zuen komuna" leloa zuen pankarta ezarri zuten taldekideek lantegi horri ardurak eskatuz. Bizikleta martxa Zumaiara amaitu zen Kofradia inguruan. Han ere Natur Taldekoek beste pankarta bat jarri zuten. ▶ JUAN LUIS ROMATET

julio curiel  
PELUQUERO  
Gizonezkoentzat  
ileapaindegia  
Erribera kalea, 23

ileapaindegia  
IZETA  
Urumea, 6 Tel. 862083

Larrañaga  
Juanjo  
HARATEGIA URDAITEGIA  
Basadi auzategia, 4-A Tel. 862081

# Denboraldi amaierako festa arrakastatsua

Pasa den irailaren 16an ospatu zuten Aita Mari Arraun Elkartekoek beren 25. urteurren festa. Bestela ere egun pozgarria izan behar zuena oraindik ere alaiagoa bihurtu zen, egun berebean bedeinkatu baitziren denboraldi guztian zehar irabazitako ikurrina denak. Guztira sei ikurrina bedeinkatu zituen Joxe Etxeberria apaizak San Telmoko ermitan, aurreko denboraldian baino lau gehiago. Ez da gutxi.

Sei ikurrina. Bateletan gazteek irabazitako ligako ikurrina, trainerilletan Gipuzkoako Txapelketa eta traine-ruetan lau ikurrina: Colindreskoa, Oriokoa eta Santoñako bi. Azken bi hauek bedeinkapena izan baino egun bat lehenago irabazi zituzten Telmo Deuneko arraunlariak. Hauen azken estropada zen Santoñakoa eta bertan ez zuten arazorik izan ikurrina etxera ekartzeko, bigarren geratu zen Donibaneko 19 segundora utzi baitzuten. Irabazleari dagokion ikurrinari beste bat batu behar zaio, Santoñako estropadan bi aldiz jarraian irabazten duenarentzakoa. Azken hau denboraldi baterako ekarri dute Aita Marikoek etxera, baina badaezpada ere bedeinkatzea pentsatu dute, agian hurrengo urtean berriro irabazteko balioko duelako edo.

Larunbatean goizean goiz hasi ziren lanean arraun elkartekoak. Batzuk jangela bezala erabiliko zen Odieta



pilotalekua egokitzen, besteak afarian eskainiko ziren jakiak prestatzen laguntzen, eta bat, Karlos Aperribai, San Telmo gainera irabazitako ikurrinak eramango zituen kanoatxo apaintzen.

Arratsaldeko 7etan hasi ziren ekitaldiak San Telmo gainean ikurrinen bedeinkapenarekin. Joxe

Etxeberria apaiz pasaitarra izan zen, aurreko urtean bezala, bedeinkapenez arduratu zena. Ekitaldi erlijiosoa amaitu bezain laster, eta ikurrinaz apaindutako batela pilotalekuan utzi ondoren, jai-giroa nagusitu zen arraunlarien artean. Marru batzuk hemendik, kantu batzuk handik, poteoan Odietara hurbildu ziren. Ia toperaino zegoen frontoian ospatu zen azken ekitaldi "ofiziala", afari herrikoia.

Mahaietan oraingo eta aspaldiko arraunlariak, zuzendaritza, zaletuak aurki zitezkeen. Denak ere herriko elkarte guztien artean prestatutako jakiak dastatzen aritu ziren: marmitakoa eta atuna tomatearekin. Ondoren etorri ziren festa partikularrak norberak imajina ditzala.

◀ **JUAN LUIS ROMATET**



**MENDI - ONDO C.B.**  
**ELEKTRIZITATEA**

- ALARMAK
- ANTENAK
- . Banakakoak
- . Kolektiboak
- . Satellite bidezkoak
- ATEZAIN AUTOMATIKOAK
- ETA ABAR...

Axular, 14 Tel. 860074 - 861569

**BALEIKE**

2000ko urria. 72. zenb.



taberna  
**JUSTA**

eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20



## Itxas-Gainekoak primeran berriz ere

Itxas-Gaineko piraguistak denboraldi ederrea egiten ari direla jada ez da albistea, urteak baitira txapelketa bat bestearen atzetik irabazten ari direla. Hala ere, aipagarria da azken hilabete hauetan lortu izan dituzten garai-penak, bai taldeka bai banakoak. Alde batetik, Iñaki Vita piraguista gaztea maratoi proban Espainiako txapeldun suertatu zen abuztuaren Ebro ibaian lehiatu zen txapelketan. Bestetik, Abiadurako Espainiako Txapelketan Itxas-Gain taldeak guztira 20 domina lortu zituen; benetan marka paregabea.

Abuztu hasieran jokatu zen Errioxako Azagra herrian Espainiako Maratoi txapelketa. Esan liteke proba hau dela denboraldiko gogorrena, piraguistek ez baitute uretan bakarrik lan egin

behar. Ibilbidean zehar ontzia bizkar gainean dutela lasterka egin behar duten zati batzuk agertzen dira. Azkenean, borroka latz eta gogor baten ondoren Iñaki Vita zumaiarra izan zen helmugara heldu zen lehen piraguista, horrela Espainiako txapeldun bihurtu zen. Aipatu behar oso denboraldi gogorra izan dela Iñakirentzat honako hau. Zorte txarra lagun izan duen urtea izan da aurtengoa, eta horregatik pozez gainezka daude taldekoak bere balioa agerian utzi duelako.

Hala ere, ez zen izan Itxas-Gainekoek lortu zuten postu on bakarra, emakumeen K-2 ontziak, Batirtze Letamendia eta Maite Garciak gidatutakoak, zilarrezko domina lortu baitzuen. Orotara Itxas-Gain taldetako sailkapenean laugarren postua lortu zuen.

### Hogei domina abiaduran

Aste batzuk geroago junior eta kadete mailetako Abiadurako XXXII. Espainiako Txapelketa jokatu zen A Coruña-ko Portodemouros urtegian. Bi distantzian (500 metro eta 1.000

metroan) korritzen zen txapelketa honetan guztira hogei domina lortu zituzten Itxas-Gaineko kirolariek, lau urrezko domina, sei zilarrezkoak eta hamar brontzezkoak.

Domina hauen erdiak 500 metroko distantzian lortu zituzten. Emakumezko K-2 kadete ontziak, Ester Eizagirre eta Nerea Azpillagak eramanak, zilarrezko domina bana irabazi zituen. Bi piraguista hauek egun berean berriro igo ziren podiumera Karmele Aizpurua eta Maite Amilibiarekin batera emakumezko K-4 kadete ontziarekin. Gizonezkoek dagokienez, Juan Mari Azpillaga, Jon Iñaki Izpizua, Imanol Atorrasagasti eta Iñaki Vitak gidatutako K-4 juniorra hirugarren heldu zen helmugara, eta brontzezko domina lortu zuten.

Hurrengo egunean jokatu ziren 1.000 metroko distantziako probak. Aurreko egunean bezala Itxas-Gainekoek sekulako eguna izan zuten. Nerea Azpillaga (guztira lau domina irabazi dituen) eta Maite Amilibiak eramandako K-2 hirugarren izan zen. Hala ere, pozik handiena emakumezko K-4 ontziak eman zuen Espainiako Txapeldun bilakatu baitziren. Lau piraguista hauek 500 metroko proban podiumera igo ziren beraiek izan ziren. Eguna amaitzeko, emakumezko K-4 juniorra, Batirtze Letamendia, Maite Benito, Maite Garcia eta Maialen Iturbidek eramana, podiumera igo zen domina bana jasotzera.

Domina kopuru izugarri honetaz gain, txapelketa honetan Itxas-Gaineko beste sei ontzi ere finalerara heldu ziren, nahiz eta azkenean dominarik lortu ez. ◀ **JUAN LUIS ROMATET**


**KABI**  
TABERNA - ZUMAI  
Tel. 143379

**KALARI**  
Erribera kalea, 16  
Tel. 862517

- \* Eguneroko bazkaria
- \* Pintxo eta bokatak
- \* Koadrilentzako menu bereziak
- \* Kazuelitak eta plater konbinatuak

**KRESALA**  
— edergintza —  
Baltasar Etxabe, 5  
Tel. 943 14 31 35

- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a



### III. Esku pilota txapelketa herrikoia

Urriaren lehen asteburuan hasi da Odieta pilotalekuan Zumaiaiko Esku pilota txapelketa herrikoiairen hirugarren edizioa. Guztira zortzi bikotek hartuko dute parte txapelketa honetan. Partiduak astero ostiral gautan eta igande goizetan jokatu dira. Fase erregularrak azaroaren 18an amaituko dela pentsatzen da. Jarraian final erdiak jokatu dira. Finalak, aldiz, abenduaren 3an jokatu dira Odieta pilotalekuan.

### Futbol zelai berriaren inaugurazioa

Arritokieta amabirjinaren egunarekin batera inauguratu zen Aita Mari futbol zelai berria. Gogoratu hemendik aurrera belar artifizialaren gainean jokatu direla futbol partida guztiak. Joxe Mari Larrañaga apaizak zelai berria bedeinkatu ondoren, Ricardo Peña alkateak hartu zuen hitza. Honen esanetan sekulako abantaila da horrelako zelai bat izatea, hemendik aurrera nahi duten guztiak jokatzeko aukera izango baitute. Inaugurazio ekitaldiaren ondoren hainbat futbol partida jokatu ziren. Hala ere bitxia Zarautz eta Zumaiaikoko beteranoek jokatuakoa izan zen. Jaia zertxobait hondatzeko herritarrek galtzaile atera ziren, eta nola! (0-5).



### Plaieroen txapelketa antolatzen

Aurreko urtean herriko gazte koadrila batek plaiero txapelketa antolatu ondoren, aurtengoan Zumaiaiko izango da berriro ere kirol proba hau antolatzeaz arduratuko dena. Oraindik ere ez dago finkatuta zein egunetan hasiko den txapelketa, baina kontuak kontu izena emateko epea jada zabalik dago. Parte hartzeko interesatuta daudenek urriaren 15era arte dute epea izena emateko. Horretarako, Zumaikoren bulegoetara joan beharko duzue, Lubakiko kiroldegira, edo bestela, deitu 943 862477 telefonora.

**KUKUTZ**  
serigrafia  
\*kamisetak  
\*txiskeroak  
\*paperezko poltsak, e.a.  
baltasar etxabe 7 tel: 86 05 69

**AIZPURUA**  
LIBRERÍA  
Aita-Mari auzategia, 17  
Tel. 943 861569

**LEIZE**  
taberna  
Juan Belmonte, 6 Tel. 860415

Urriak 19, osteguna

### **Acordes y desacuerdos (1999)**

**Zuzendaria:** Woody Allen

**Aktoreak:** Sean Penn, Uma Thurman

Aspaldiko lagun baten bisita izango dugu urrian Aita Mari zinean, Woody Allen zinegile new yorktarra. Zumaian eskainiko den azken film honetan zuzendari eta gidoilari moduan bakarrik aurkituko dugu Allen, protagonista lanetarako Sean Penn aktorea kontratatu baitu. Penn-ek 30eko hamarkadako kitarrajole baten papera betetzen du, eta Penn bera izango balitz bezala, pertsona hau gizaki neurotikoa, berekoi eta nahiko barre-garria da. Allen-ek bere azken film hau dokumental faltsu baten erara eraiki du, orain 20 urte inguru, Zelig-ekin egin zuen moduan. Pelikula, Allen-ekin gertatu ohi den bezala, bikaina da, egoera alai eta baikorrez bete. Hala ere, esan daiteke aktore hauen lana izan dela pelikularen maila puntu dezentetan igo duena. Bai Penn eta Uma Thurman, eta Samantha Morton gazte ezezaguna ahaztu gabe, izugarriak daude musikaz betetako komedia honetan.

Urriak 31, asteartea

### **Magnolia (1999)**

**Zuzendaria:** Paul Thomas Anderson

**Aktoreak:** Julianne Moore, William H. Macy, Tom Cruise

Orain urte batzuk Robert Altman-ek Short cuts filma-ekin egin zuen moduan, Paul Thomas Anderson gazteak (Boogie nights-en zuzendaria) amerikar gizartearen erradiografia zorrotz bat egin du Magnolia honekin. Californiako San Fernando bailaran kokatu du Anderson-ek bere azken lana, berak ondo ezagutzen duen leku batean. Frakaso hurbiletik ezagutu duten jendea da Magnolia-ren muina. Aktoreen artean Tom Cruise famatua dugu paper txiki batean, dudarik gabe, bere bizitza guztian egin duen lan onenean. Pelikula harrigarria eta 1999 urteko onena, kritikarien esanetan.

### **Barbara Stammel-ek 1. Saria Amurrioko Pintura Lehiaketan**

Azkenaldi hontan izan dugu aukerarik Getarian bizi den artista alemaniar honen lanak ezagutzeko. Zelaiazpi tailerrean egiten du lan eta zenbait bakarkako erakusketa ere egin ditu hemen inguruan: gogoan ditugu Zumaiako Oxford aretoan jarri zituen zuri-beltzeko argazki handiak eta igeltsuzko harraultzak, edo Zarauzko Zazpi galerian jarritako erretratuak paperezko saku gainean margotuak.

Erretratuen serie zabal horren barruan ohial gordinaren gainean margotutako koadro handiak egiten ere bazebilen, eta horietako batekin eskuratu du joan den Abuztuan Amurrioko Pintura Lehiaketako Lehen Saria. "Retrato Holandes" zen koadroaren izena eta bertan, egileak berak dioenez, alde batetik iraganeko mendeetan Herbereetako pinturak landu izan dituen erretratu klasiko haiei erreferentzia egiten zitzairen, eta bestetik koadroko modeloari konkretuki, Barbara beraren lagun holandar bat hain zuzen. Beraz, zorionak eta hurrengo erakusketaren zain geratzen gara

### **Keixeta Eibarren**

Zelaiazpiko beste partaide bat, Txiki Agirre -Keixeta-, oraingoan Eibarrera desplazatu zaigu. Han, Topalekun, bere azken lanak izan ditu ikusgai irailaren 22tik urriaren 1a arte. Iñaki Olazabalekin batera udaran iparraldean izandako erakusketaren ondoren, geldirik egotekoa ez dela erakutsi digu eta gogotsu ari da lanean, bere obra batetik bestera mugitzen.

#### ARROZTEGIA

#### Urola 2000, s.l.

- \*Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- \*Baserrien zaharberritzea
- \*Enbarkazio konponketa
- \*Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- \*Armairu enpotratuen aurrealdea
- \*Aroztegi metalikoa

Basusta bidea z/g Tel. 143505



**Rakel estetika:** kiromasajeak  
tatuajeak  
makilajeak

ETXEZARRETA, 9  
TEL: 943 86 10 21



## Loitz

- \*Eskola eta bulegorako materiala
- \*Enkoadernazioak
- \*Fax publikoa
- \*Aldizkari eta opariak

Erribera, 4 Tel./Faxa: 143422



# urria

## ALTZARIEN BERRIZTAPENA.

Urriaren 2tik azaroaren 29ra. Astelehen eta asteazkenetan, 3etatik 5etara. 30 orduko ikastaroa. Matrikula: 6.500 pezeta eta 2.500 pezeta materialetarako.

## HAURRENTZAKO PLASTIKA TAILERRA

Urriari hasi eta Gabonetako oporrak bukatu arte. Matrikula: 6.000 pezeta. 6 urtetik aurrekoentzat.

## TAI-CHI, REIKI ETA MASAJE IKASTAROAK

Siwa belardendan. Tfno: 943143404.

## EMAKUMEA ETA BIZITZA ZIKLOAN ALDAKETAK

Urriari zehar. Informazioa Gizarte Zerbitzuetan (943-862200)

## DEIALDIA

Zumaiako Argazki aukeraketa 2000. Herriaren kultur, jai eta turismo aurpegia azaltzen duten argazkiak nahi dira. Aukeraketarako oinarriak kultur etxean dituzue. Aurkezteko epea: abenduaren 1etik 11era.

## ERAKUSKETAK

Gurung: Nepalgo ezti-ehiztariak. Xabier Sardá Fabregat eta Eli Azurmendi.

► Irailaren 29tik urriaren 15era  
Foronda Kultur Etxean.

## ZUMAIAKO MAPA TOPONIMIKOAREN AURKEZPENA.

► Urriak 6. 19.00etan  
Forondan

## KONTZERTUA:

Societat Coral L'Aliança  
► Urriak 12. 20etan  
Aita Mari zinean

## ZINE FORUM SAIOA

Woody Allen-en "Acordes y desacuerdos".  
► Urriak 19. 22.15etan

## ZUMAIAKO ASTEBURU MIKOLOGIKOA

► Urriak 20tik 22ra

## ANTZERKIA

Bederen 1-en "Agureok ez genuke maitemindu behar"  
► Urriak 21

## ZINE FORUM SAIOA

Paul Thomas Anderson-en "Magnolia".  
► Urriak 31. 22.15etan

INMOBILIARIA



BIDAIAK

Ortega y gasset, 1 Tel. 143361 - 143323

## SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituzenean
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilita
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etxezarreta, 19 bis Tel./Faxa: 861416

*fidatzeko baimen guztiak*



## Nikol Enea



TABERNA

Amaiako plaza

Tel. 861440



Rakel  
apaindegia

kiromasajea  
tatuajeak

Aita Mari 42. behea TEL. 943 862093

MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Eparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160  
ZUMAIATA

TXALAPARTA  
OPARIK

Angeles Sorazu, 2  
Tel. 143089

ILE APAINDEGIA

herea  
Uranga

Etxezarreta, 19 Tel. 862342

## Jazzari buruz

Gauza arraro bat: sartu ginen Erribera kaleko taberna narrats hartan eta han, eskuineko mahaian, Theloniushaharra, Charlie, Larry zaharra eta Ben Riley zaharra musean zebiltzan betiko moduan. Zarataka, edanean, noizbehinka barrez eta eztulka. Lau agure, laurak beltzak. Ezagunak ziren Theloniusharen tranpak eta joko eszentrikoa eta baita Charlie Rousen zortea karta onak izateko. Erre ere dezente egiten zuten.

Klaro, gauza arraro asko gertatzen dira munduan, baina hau ez da inoiz gertatu, ezta gertatuko ere; Theloniush Monk hil zen eta bere hiru lagun horiek ere hor nonbait. Pena da, benetan gustatuko litzaidake taberna batera sartu eta lau agure horiek edo antzeko beste batzuk musika jotzen aurkitzea. Jotze hutsaren plazerragatik, ostegunero biltzeko ohitura duen lagun taldea, ondo pasatzeko soilik; jendeak musean jokatzeko duen moduan edo afariak egiten dituen antzera.

Ez dugu kultura hori jaso, eta gure ondorengoek ere ez dute jasoko seguruenik. Egin dezakegun gauza bakarra Donostiako Jazzaldira joatea da (edo Gasteizkora) (edo Getxokora) (edo Baionakora). Hori da dena. Egia esan, aukera zabala da. Hori bai, uztaila eta abuztura mugatzen da dena, ia hitz hauek ere lekuz kanpo daude; zer ari da gizarajo hau URRIAN jazzari buruz hitz egiten! Jazza udakoa



da: manga motzak, terrazak, Heineken garagardoa, beltz horiek izerditan, hard-bop, be-bop, Donostia, Kursaal. Listo. Bukatu da. Orain beste zerbait dago programatuta: Zinemaldia edo, ez dakit. Kontua da snobismoak bultzata edo Easy Price pegatinak zeuzkatelako CD batzuk erosi zenituela, eta orain hor daudela apalean. Adibidez, Theloniush Monk-en "Live at the It Club" hori, Columbia etxekoa. Bertan kafetegiko giroa suma dezakezu lehenengo kantutik: entzuleen zurrumurrua, oihiu eta txaloak eta musikariak jolasean standarren gainean inprobisatzen.

Azkeneko Zehar aldizkarian aipatzen zuten nola arte sorkuntzatik delinkuentziara oso pauso txikia zegoen. Dударik ez Theloniush Monk delinkuente handia bat izan zitekeela; bere pianoa entzutea besterik ez dago; aizto zorrotzak bezalakoak dira handik ateratzen diren notak. Charlie Rousen saxofoia ume potolo bat bada, alaia,

lasaia; Theloniush atzetik azaldu eta labana sartzen dion hori da, barre eginaz, behin eta berriz, hezurra bilatu arte. Guri, entzuleoi hori dena ederra iruditzen zaigu; gogorra baina ederra. Izan ere, oso exajeratua izan behar du jende arrunta hunkitzeko gai izango den zera horrek (musika, arte, dantza, notizia katastrofiko).

Horrela kokatu izan dira sortzaile asko muturretan, norbere suntsipenetik oso gertu edo erlijiotasun konbentzitu baten menpe. John Coltranek azken bide hori hartuko zuen; Chet Baker edo Charlie Parker-ek lehenengoa, drogetan murgilduko ziren, heroina eta abar eta abar pixkanaka hil arte.

Bere lana mistikotasunez zipriztintzen duen beste egile interesgarri bat Steve Coleman saxojole gaztea dugu ("Kosmoseko indarrak", "Unibertsoko estrukturak", "Jaunaren behatza", "Mantra", horrelako harribitxiak aurki ditzakegu bere diskoen azaletan). Hala ere bere musika beste zerbait da,


**liburuak**  
**aldizkariak**  
**CDak**  
**komikiak**  
**eta**  
**fantztzineak**

ERRIBERA 10  
TEL: 943 86 21 14

**B. Etxegarai 2, beheha**  
**943 86 27 14**



**GAZTEEN EUROPA**

**ZALLA**  
Taberna - Erretegia

- \* plater konbinatuak
- \* otartekoak
- \* oilasko erreak

San Pedro, 4      Tel. 862387

# Laburrak

erritmikoa, konplexua, mestizoa, eta ez dut uste entzute hutsarekin sektaren bateko partaide bihurtuko garenik bat-batean. Beno, agian bai, tunikarekin eta horrela kalera irteten hasten naizenean abisatuidazue badaezpada ere. Joan den urteko Jazzaldian Donostian ikusteko aukera izan genuen doako emanaldi batean beste zenbait taldeekin batera, tartean Clint Eastwood-en semearen taldea, Kursaalaren inaugurazio ekitaldiekin bat eginez, eta jendea guztiz harrituta utzi zuen.

Aurtengo Jazzaldiko egitaraua nahiko tristea izan da; bazegoen, ordea, kontuan hartzeko proposamenik ere; hiru konpositore klasikoren gainean eginiko interpretazio libreak Uri Caine pianojolearen eskutik. Horietako konpositore bat, nola ez, Johan Sebastian Bach zen. Betidanik aipatu izan da bere lanek jazzarekin duten harremana. Bestalde, mistiko handi bat ere bazen; berak hala sentitzen zuelako edo Elizarekin harremanetan egotea beste erremediorik ez zuelako, dirua hor baitzegoen. Ze, mistikoa bai baina follatu ere ederki egiten zuen elementu honek, Maria Barbara eta Anna Magdalena bere emazteekin izandako 20 seme-alabak horren lekuko. Brandenburgoko kontzertuak oso ondo egongo dira, baina dudarik ez dago nork ezagutu zituen Johan Sebastianen fugarik onenak. Dena ez baita klabikordioa jotzea. Eta oraingoz hemen utziko ditugu jazzaren inguruko hausnarketa ez oso ortodoxo hauek. ◀ **JON MANZISIDOR**

## Nidel taldearen lehen maketa

Nidel taldea abuztuan sartu zen Lukas estudioetara beren lehen maketa grabatzera. Zortzi kanta aukeratu dituzte eta urrian kalean izango dela espero dute. Mojo, Gartxi, Uhin eta Aimarrekin hala ere sakonago hitz egiteko asmoa dugu datorren hileko Baleiken C.D-a jada kalean denean. Bestalde kontzertu berri bat noiz joko esperoan gaude, uda hasieran Dut-ekoekin batera jo behar zuten hura ez baitzen posible izan.

## Azken Taupada ere grabatzen

Azken taupada taldekoek ere urrian ateratzeko asmoa dute lehen maketa. Hauek ere, Nidel-ekoek bezala, Lukas estudioetan egin dituzte grabaketak. Eta noski, hauekin ere hitz egingu dugu aurrerago.

## Anestesia

Anestesia beti talde zarauztarra kontsideratu izan da; hala ere Ibon, Atxantatu taldeko abeslaria, Anestesian sartu zenetik piskat zumaiarra ere badela esan dezakegu (%25 behintzat), bestela ez genuen hemen horren berririk emango. Hauek ere diska grabatzera sartuko dira urrian, Esan Ozenki zigiluarentzat, hala uste dugu behintzat. Zuzeneko emanaldietan taldearekin nola akoplatu den ikusita zer ekarriko diguten zain gaude.

## Oxford

Oxford pixkanaka konpontzen ari dira, badirudi azkenean kultura helburuko ekintzetara bideratuko dela; hala ere bitartean erakusketa areto bezala eta bilerak egiteko funtzionatzen jarraitzen du. Galdera honakoa da: zergatik ez dira egiten lehen bezala (Gazte Batzordearen hasierako urteetan bezala) kontzertu txiki haiek? Eta antzerki saioak? Gari, Xabier Montoia, 6Nemen 9, Deabruak teilatueta eta abar pasa dira handik (gazteek agian ez zuten haiek ikusteko aukerarik ere izango). Hurbileko kontzertuak ziren eta horrek beste berotasun bat ematen zien. Faltan botatzen da horrelako espazio bat herrian, ez baitago taberna pribaturik ere orain horrelako saioak antolatzen dituenik (txalotu beharrekoa da ilargik zenbait urtetan egin zuen lana). Oxforderrako jarraipena mantenduko duen programaketa serio baten beharra ikusten da, agian udaletik-edo antolaketa ardua eramango lukeen norbait aurkitu beharko litzateke. Eta dirua ez da arazoa. Gero pixkanaka intsonorizazioa eta lokalaren egokitze lanak egin beharko lirateke, areto polibalentek sortu edo ekintza konkretuetarako izango direnak. Zumaiari fatxada oso polita ari zaio gelditzen, ea mamia ere pixkat zaintzen den. ◀ **JON MANTZISIDOR**

**ttikittaka**  
  
**haur oinetakoak**  
 BALTASAR ETXABE 2/G TEL: 943 - 14 31 00 ZUMAIA

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA  
 GIPUZKOA Kalea, 33 C 3ª 20.800 ZARAUZ  
 (GIPUZKOA)  
 Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

  
**TXINGURRI**  
 Koop. Elk.  
 Nekazaritza Injineru Teknikoak

Jardinen diseinu  
 ... mantentzen  
 Nekazaritza zerbitzuak  
 Kirazelaen mantentzen  
 Txostenak ...  
 ahalagaritza teknikoa.  
 Biorazioak

**TXOKO ABERNA**



Artadi auzoa  
 Tel. 862189

# HARROKERIA



ETA HEMEN DUGU  
OSASUN MINISTROA, BA...  
ZORIONAK EMATEKO

... BERAZ, ALBISTEA  
BAIEZTATZEN DUGU, SUBURREKO  
HAZKUREA BAZTERTEA LORTU DA  
GURE HIKITARREN ARTEAN, DATU  
GUZTIEN ARABERA




BENO, ZIUR NAGO GURE IMUSLE  
GUZTIEK INOIZ EZ DEN INUSI  
MIRARI HONEN SEKRETUA JAKIN  
NAHIKO DUTELA...


BA... OSO ERKAZA... ADMINISTRAZIOAREN  
AHALEGIN IZUGARRIA...




... AGENTE SOZIAL GUZTIEN  
KOLABORA ZIOA...



... PROFESIOALEN  
GAITASUN OSOA...



... AURRE EGIN IZAN  
AHAL DIOGU...




... IZUGARRIZKO  
ARAZO HONI...



... BALINTZA KOYUNTURALEI  
ESKER, ERE...



...ETA ORAIN, KIROLAK:  
BORROKAILU LIGAN, BORROWA  
LATZA EUROPA SARTZEKO...



... ARRAKASTA OSOZ...



*Hau aspertua hartzen ari naizena!  
Beste pixka batean egongo naiz zain  
eta nire nagusia bi moja arraio  
horiekin azaltzen ez bada, Erreke-  
teneko tabernara joango nauk gosalt-  
zera. Arrautza pareta bi txorixo  
muturrekin ez zaidak barere gaizki  
etorriko tripako musika baretzeko.  
Eskerrak bart gauean kriston propina  
jaso nuen azken orduko presako bidaia  
hura egiteagatik! Nahiko zortea izan  
diat lan horrekin. Ea nagusiak bere  
hitza betetzen duen eta bost urte barru  
neu egiten naizen zalgurdiaren kargu.  
Orduan has naitekek ezkontzan  
pentsatzen. Goiko Plazako Felix-en  
alaba gazteenari begia jota zioat, begi  
onez begiratzen naik, eta ordurako  
uste diat patrikan izango dedala.  
Karajo! Zertan ari ote dira moja  
horiek! Ezta Palazio Haundiko seño-  
rak balira ere! Zenbat denbora habito  
xahar bat janzteko! Eta zertarako eta,  
zera, Zestoako Bainu-Etxera joateko!  
Ez nian uste mojak ere kaka egin  
ezinik ibiltzen zirenik. Fedeak  
mendiak mugitzen dituela esaten ditek  
abadeek, baina dirudienez horien  
errezoak ez ditek balio barruko lehortea  
sendatzeko. Beno, aspertzen ari nauk.  
Beste pixka bat egon eta agertzen ez  
badira Erreketenera natziak.*

*Txoazkin.*

## Alemanez ZARAUTZEN

Irailaren 19tik aurrera  
matrikula zabalik

Kale Nagusia, 38 - 2. bulegoa  
Tel.: 943 83 56 09

## BELARDENDA SIWA



Izaga Garcia  
DIETISTA

Esther Blanco

OSTEOPATA - MASAJISTA

Basadi, 5-C behea Tel. 143404 - 860012



haur jantziak

Amaiako plaza z/g

Tel. 860959

## OPTIKA ZUMAIA



Txomin Agirre kaia, 6

Tel./Faxa: 943-143057

Z U M A I A



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa  
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12

Tel. 861412



Alai auzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA

Itzurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA

**IBARGUREN**

**agustin**

• Txarkuteria bikaina  
• Inguruko baserrietako haragirik onena

• Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak

RPS: 034/97




**"Muagi"**

**Medikuntza eta errehabilitazio zentrua**

Aita Mari poligonoa, 3. blokea. Tel. 943 86 16 91

Z U M A I A



MEDIKUNTZA OROKORRA

KIRURGIA OROKORRA

Juan Ignacio Alberdi doktorea

ERREHABILITAZIOA

Maria Etxaniz doktorea

FISIOTERAPIA ETA

INDARBERRITZE FUNTZIONALA Inma Cabanillas andrea

KIROL MASAJEA ETA TERAPEUTIKOA

KIROL ETA ARIKETA

FISIKORAKO MEDIKUNTZA

J.M. Gonzalez Aramendi doktorea

• Kirol gaitasuna neurtzeko azterketak

• Esfortzu frogak

• Kirolerako balorazio eta segimendu medikoa

# berria!

XSARA

# ZUMAIA MOTOR



**CITRÖEN  
ZERBITZU  
OFIZIALA**

Santixo auzoa, 22 Tel. eta Faxa : 943 143 143

mekanika orokorra • erakusketa • salmenta • bigarren eskuko autoak



KOSTA GAS C.B.



ZERBITZU OFIZIALA

ETXEZARRETA, 6  
ZUMAIA  
TEL. 861078

## KALEFAZIO ETA GAS INSTALAZIOAK

PRESUPUESTOAK ZURE NEURRIRA  
EGITEN DITUGU.  
ESKA EZAZU ZEUREA INOLAKO  
KONPROMEZURIK GABE

*Zatoz eta galdetu*

GAS NATURALA

BUTANO

PROPANO

